

Ikerkuntza feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak

Barbara Biglia
Ochy Curiel
Mari Luz Esteban

Lan-Koadernoak / Cuadernos de Trabajo • Hegoa, 67. zbk., 2015

Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua



Erredakzio Kontseilua

Zuzendaria: Patxi Zabalo
Idazkaria: Mari José Martínez
Diruzaina: Eduardo Bidaurratzaga
Kideak: Elena Martínez Tola
Jokin Alberdi
Gloria Guzmán
Amaia Guerrero

Argitalpen Kontseilua

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ekuador)
Iñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU
Roberto Bermejo. UPV/EHU
Carlos Berzosa. Madrilgo Unibertsitate Komplutensea
Cristina Carrasco. Bartzelonako Unibertsitatea
Manuela de Paz. Huelvako Unibertsitatea
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU
Caterina García Segura. Pompeu Fabra Unibertsitatea
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)
Begoña Gutiérrez. Zaragozako Unibertsitatea
Yayo Herrero. Ecologistas en Acción
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU
Carmen Magallón. Fundación Seminario de Investigación para la Paz
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Erresuma Batua)
María Oianguren. Gernika Gogoratuz
Jenny Pearce. University of Bradford (Erresuma Batua)
Itziar Ruiz-Giménez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
Bob Sutcliffe. Hegoa, UPV/EHU
José M^a Tortosa. Alacanteko Unibertsitatea
Koldo Unceta Satrustegui. Hegoa, UPV/EHU

Hegoa Lan-koadernoak/Cuadernos de Trabajo aldizkako argitalpena da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoak –Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak–, 1989. urtean aurrera argitaratua emandakoa. Diziplina arteko eta diziplina anitzeko ikuspegia izanik, aldizkari honek argitaratzen dituen azterketak ikerkuntza original, empiriko edo teoriko baten emaitza dira, eta giza garapenaren eta lankidetzeta eraldatzailearen eremuko arazo, esparru analitiko eta jarduerari buruzko alderdiak lantzen ditu.

Hegoa Lan-koadernoak/Cuadernos de Trabajo aldizkariak izaera monografikoa du, urtean hiru aldiz argitaratzen da, eta ale bakoitza lan zehatz bati eskaintzen zaio, beste aldizkari batzuetako artikuluetan ohikoa dena baino hedadura zabalagoz. Edizio elektronikoa Hegoa Institutuaren webgunean (<http://www.hegoa.ehu.es>) eta EHUren webgunean (<http://www.ehu.es/ojs/index.php/hegoa>) eskuragarri dago.

Ikerkuntza feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak

Egileak: Barbara Biglia, Ochy Curiel eta Mari Luz Esteban
Itzulpena: Irene Hurtado Mendieta - Hitzek
Hegoa Lan-koadernoak/Cuadernos de Trabajo • 67. zbk. • 2015
Lege-gordailua: Bi-1473-91
ISSN: 1130-9962
EISSN: 2340-3187

Hegoa
www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa.
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Hegoa Lan-koadernoak/Cuadernos de Trabajo aldizkarian argitaratzen diren artikuluko guztiak, Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraderivada 3.0 España. Lizentzia osoa:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Editorea:



Laguntzailea:



Finantzatzailea:



Argitalpen honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du, ikerkuntza eta intzidentzia politikoaren bidez lankidetzeta eraldatzailea indartzeko Hegoarekin elkarlan hitzarmenaren markoan.

Ikerkuntza feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak

Barbara Biglia. Psikologian doktorea eta Rovira i Virgili Unibertsitatean irakaslea, non SIMReF-Ikerkuntza Feministarako Metodologia Diziplina Anitzeko Mintegia koordinatzen baituen. Genero indarkeriaren eremuan lan egin izan du bai maila teoriko-akademikoan zein arreta zuzeneko zerbitzuetan. Epistemologia eta metodologia feministan eta genero ikasketetan aditua da, eta gai horien inguruan hainbat argitalpen ditu.

Ochy Curiel. Gizarte antropologoa, Kolonbian bizi den ikertzaile eta aktibista feminista dominikarra. GLEFAS-Formakuntza eta Akzio Feministarako Talde Latinoamerikarraren partaide da. Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko Genero Ikasketak Maestriaren ardura du eta Amerika Latinako beste zenbait unibertsitateetan irakaslea da. Emakume Afroen Identitatearen Aldeko Etxearen proiektua koordinatu zuen. Identitate, interseksionalitate, teoria postkolonial eta arrazismoaren kontrako feminismoaz ikertu eta argitaratu du. Bere azken liburuan, *La nación heterosexual*, diskurtso juridikoaren eta erregimen heterosexualaren azterketa egiten du dominazioaren antropologiatik.

Mari Luz Esteban. Medikuntzan lizentziatua UPV/EHUn eta gizarte antropologian doktorea Bartzelonako Unibertsitatean. Gizarte antropologian irakaslea eta UPV/EHUko Ikasketak Feministak eta Generokoak Masterreko batzorde akademikoaren partaidea da. Antropologia femnista eta medikuntzaren antropologian aditua da. Ekimen eta elkarte feminista ezberdinetan parte hartu du. Feminismoa, identitateak, gorputz etnografia, maitasuna, osasuna, etabarrei buruzko argitalpenak ditu. Bere hainbat lan eta kolaborazioak direla medio, erreferente teoriko eta aktibista garrantzitsua da unibertsitatean eta gizarte elkartearen artean.



Laburpena

Barbara Bigliak, gizarte esku-hartzea eta eraldaketa bilatzen duen ikerkuntza feministaren epistemologia eta metologiaren arloan digresioa aurkezten du. Bertan, ezagutzaren produkziara hurbilpen kritiko feminista izan daitekeena, dena eta izatea gustuko genukeenaren arteko eztabaidak gurutzatzen dira. Eztabaida horiek adibideekin gorpuztea da saiakera, eta modu horretan hausnarketa teorikoak “lurreratzea”. Artikulua zientziari egiten zaizkion kritika feminista nagusienak aurkezten hasten da. Horrekin batera, egileak berebiziko garrantzia egotzi egiten dio egun ezagutzeko erak birpentsatzeari, eta ez hainbeste ikerlariaren identitate generizatuaz ohartzeari. Jarraian, gure ikerketetan proposamen epistemologiko feministak praktikara eramateko aurkitzen ditugun zenbait erroka azaltzen dira, proposamen horietako batzuren “sukaldea” irekiz eztabaidak abstrakzioan gera ez daitezen. Artikulua, hausnartzen jarraitzeko kezka eta proposamen zerrenda labur batekin amaitzen da.

Bigarren artikuluan, Ochy Curielek metodologia kritiko feministen erinkuntzan feminismo dekolonialaren ekarpenak aurkezten ditu. Horrela, feminismo hegemonikoaren boterearen, jakitearen eta izatearen kolonialitatea erreproduzitu egiten dituzten postulatu teoriko, epistemologiko, metodologiko eta etikoei buruz hausnartu dezagun gonbidapena luzatzen digu. Postkolonitatea eta dekolonitatearen arteko desberdintasuna argitu ondoren, egileak feminismo postkolonial eta dekolonialtzat ulertzen duena karakterizatzen du, zalantzan jarriz ikerketa feministetan ikuspegia, erreflexibitatea, subjektu-objektu harremana eta interseksionalitatea. Baita ere, egileak ezagutzaren produkzioan botere logikak erreproduzitzen dituztenen eta arraza, klase, sexualitate eta geopolitikak zeharkatuak diren adierazpen lekuak eta posizionamenduak eztabaidatzen ditu.

Hirugarren artikuluan, Mari Luz Estebanek euskal feminismoan ematen diren ezagutza zirkuituak aztertzen ditu, alegia, eremu ezberdinen artean jakitea produzitzeko eta zirkulatzeko eman diren modu nagusiak eta horien eraldaketak azken hamarkadatan. Horretarako, egileak Euskal Herriko feminismoaren bereizgarri batzuk kontuan hartzen ditu, baita unibertsitate kultura hegemonikoa eta bizi garen testuinguru sozial eta politikoa ere. Artikuluan zirkuitu horiek bere zabaltasun eta konplexutasun osoan ikustarazteko beharra argudiatzen da, eta horrekin batera ingurune ezberdinen arteko harremanak hobeto sistematizatzearena. Zehazki, egileak aztertzen dituen feministen arteko elkarguneak unibertsitateko ikasgela eta emakumeen etxea (jabekuntza eskola) dira.

Gako-hitzak: Feminismoa, ikerkuntza, epistemologia, metodologia, dekolonialitatea.

Resumen

Barbara Biglia presenta un *excursus* en el campo de la epistemología y la metodología de investigación feminista para la intervención y la transformación social. En él se entretienen debates entre lo que quisiéramos que fuera, lo que está siendo y lo que podría ser un acercamiento feminista crítico a la producción de conocimiento, intentando corporeizar esos debates a través ejemplos que nos permitan el “aterizaje” de las reflexiones teóricas. El artículo se inicia introduciendo las principales críticas feministas a la ciencia y explicando los motivos por los que, en la actualidad, es de extrema importancia repensar las maneras de conocer, más que fijarse en la identidad generizada de las y los científicos. Seguidamente se presentan algunos de los retos a los que nos enfrentamos al poner en práctica las propuestas epistemológicas feministas en nuestras investigaciones, abriendo “la cocina” de algunas de ellas para que los debates no se queden en la abstracción. El artículo termina con un breve elenco de inquietudes y propuestas sobre las cuales seguir reflexionando.

En el segundo artículo, Ochy Curiel aborda los aportes del feminismo decolonial en la construcción de metodologías feministas críticas. Se trata de una invitación a que reflexionemos sobre los postulados

teóricos, epistemológicos, metodológicos y éticos que reproducen la colonialidad del poder, del saber y del ser del feminismo hegemónico. Tras esclarecer la diferencia de lo postcolonial y lo decolonial, la autora caracteriza lo que se entiende por feminismo postcolonial y decolonial, problematizando el punto de vista, la reflexividad, la relación sujeto-objeto y la interseccionalidad en las investigaciones feministas, y cuestionando los lugares de enunciación y los posicionamientos atravesados por privilegios de raza, clase, sexualidad y geopolítica de quienes reproducen lógicas de poder en la producción del conocimiento.

En el tercer artículo, Mari Luz Esteban analiza los circuitos del conocimiento en el feminismo vasco, es decir, las principales formas de generación y circulación del saber entre distintos espacios y sus transformaciones en las últimas décadas. Para ello, la autora tiene en cuenta algunas peculiaridades del feminismo en el País Vasco, así como la cultura universitaria hegemónica y el contexto social y político en el que vivimos. En el artículo se argumenta la necesidad de visibilizar esos circuitos en toda su amplitud y complejidad, así como sistematizar mejor las relaciones entre distintos entornos. Específicamente, los dos espacios de encuentro entre feministas analizados por la autora son el aula universitaria y la casa de las mujeres (escuela de empoderamiento).

Palabras clave: Feminismo, investigación, epistemología, metodología, decolonialidad.

Abstract

Barbara Biglia presents an *excursus* in the field of feminist research epistemology and methodology that is oriented to social intervention and transformation. She interweaves debates on what we would like that research to be, what it is being and what could be a critical feminist approach to knowledge production: one that tries to come about those debates with examples that allow us “landing” theoretical reflections. First the article introduces the main feminist critics to science and explains why it is extremely important nowadays to rethink the ways of knowing, rather than focusing on scientists’ gendered identities. Next the author presents some of the challenges we face when we apply feminist epistemological proposals in a practical way on our researches. In doing so, she opens the “kitchen” of some of those researches, so that the debates do not remain in abstraction.

In the second article, Ochy Curriel deals with the contributions of decolonial feminist to the building of critical feminist methodologies. She invites us to reflect on the theoretical, epistemological, methodological and ethical postulates of hegemonic feminist, which reproduce the coloniality of power, knowing and being. After clarifying the difference between postcoloniality and decoloniality, the author characterizes what is understood as postcolonial and decolonial feminism, and she makes problematic ideas such as standpoint, reflexivity, subject-object relation and intersectionality applied to feminist researches. At the same time, she questions the enunciation places and the positionings crossed by privileges based on race, class, sexuality and geopolitics of those that reproduce power logics in the production of knowledge.

In the third article, Mari Luz Esteban analyses the circuits of knowledge in Basque feminism, that is, the main ways of generation and circulation of knowledge between different spaces and their transformations during the last decades. To do so, the author takes into account some peculiarities of feminism in the Basque Country, together with the hegemonic university culture and the social and political context that we live in. The article argues the need to make those circuits visible in their amplitude and complexity, as well as to better systematize relationships between different spaces. Specifically, the author analyse two feminist spaces of encounter: the lecture room and the women’s house (school of empowerment).

Key words: Feminism, research, epistemology, methodology, decoloniality.

Aurkibidea

Epistemologia feministak gizarte ikerketan: aurrerapenak, dilemak eta erronkak 7

Barbara Biglia

1. Sarrera 7

2. Nor bere tokian kokatzen, elkar ulertzeko 8

3. Ikerketa feministei begirako zenbait erronka 12

3.1. 1. erronka. Ikertzea eta esku hartzea: elkarrekin, baina ez nahasian 12

3.2. 2. erronka. Ikertzaileak feministak direla eta zientzia ere feminista dela pentsatzeari uztea 13

3.3. 3. erronka. Kuantu-kuali antinomia deuseztatzea 13

3.4. 4. erronka. Genero-ikuspegiaren ondorio makurrak 13

3.5. 5. erronka. Ikerketa kokatuen erronka 14

3.6. 6. erronka. (Ez) ordezkatzeko testuinguru interseksional batean 14

3.7. 7. erronka. Interseksionalitatea 15

4. Sukaldean sartuta, adibide praktikoak 16

4.1. 1. kasua. "Ahalduntzeko" premiak eta zerbitzu publikoak 16

4.2. 2. kasua. Lankidetzaren ikerketak 17

4.3. SIMReF mintegiaren esperientzien zenbait adibide 18

5. Proposamenak eta kezkak 20

Bibliografia 21

Feminismo dekolonialetik metodologia feministak eraikitzen 25

Ochy Curiel

1. Sarrera 25

2. Postkolonialismoa 26

3. Feminismo dekolonialari buruz 28

3.1. Metodologia feminista? Interseksionalitatearen ikuspegia	31
3.2. Subjektua-objektua erlazioa	33
3.3. Deslotze epistemologikoa	33
a) Eskumendekotutako jakintza “besteen” aitortza eta zilegitzea	33
b) Ezagutzak sortzeko baldintzak problematizatzea	34
Bibliografia	35
Euskal feminismoa eta ezagutzaren zirkuituak: mugimendua, unibertsitatea eta emakumeen etxea	37
Mari Luz Esteban	
1. Sarrera	37
2. Euskal feminismoa: ezaugarriak eta eraldaketak	38
3. Ezagutzaren ekoizpenerako eta zirkulaziorako metodologiak: azken hamarraldietako aldaketak	41
4. Proposamen teorikoen eraginaren bilakaera	43
5. Elkartzeko eta ezagutza ekoizteko bi gune: unibertsitateko ikasgela eta emakumeen etxea (jabekuntza eskola)	44
6. Unibertsitate-sistema eta feministen arteko aliantzak	47
Bibliografia	48

Epistemologia feministak gizarte-ikerketan: aurrerapenak, dilemak eta erronkak

Barbara Biglia

1. Sarrera

Kapitulu honetan, egiteko aski zaila betetzea dagokit; egiteko zaila, baina, aldi berean, esker onekoa: hain zuzen ere, irakurleak ikerketa-metodologia feministaren arloan murgiltzea, esku hartzeko eta gizarte-eraldaketarako proposamen modura harturik ikerketa. Helburua ez da panoramari ikusle pasiboen modura begiratzea; baizik eta sakontzea eta eztabaidatzea nolakoa izatea nahiko genukeen, nolakoa den eta nolakoa izan litekeen ezagutzaren ekoizpenerako hurbilketa feminista. Jakintza eraldatzaileak ekoizteko eragiletza feminista gure gain hartzeko aukerak zabaldu nahi ditugu, modu eraikitzailean eta errespetuz jardunez ikergune eta ikertzaile kide ditugun gizarte-errealitateekin elkarreraginean. Pentsatze hutsak zorabioa eragiten dit... Baina eginahal guztiak egingo ditut orekari eusteko eta Hegoako eta Euskal Herriko SIMReF mintegiko kideek egin didaten eskariari erantzuteko; bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet nigan jarritako konfiantzagatik¹. Hona hemen, bada, gogoeta zenbait, mugak muga talde-eztabaidarako akuilu izango diren itxaropenez bilduak.

Lehen atala esku-hartze eta ekintza sozialaren arloan jardun arren ikerketaren eta epistemologiaren kodeak eta hitz potoloak partez behintzat ezagutzen ez dituzten haiei begira landua da. Honako asmo honekin: ezagutza ekoizteko prozesuei buruzko kritika feministen berri ematea, proposamen epistemologiko –eta, noski, politiko– zehatz batean kokatzeko, azkenik, eta, bide horretatik, jakintzak sortzeko moldeak birdefinitzeko premia agerian uzteko. Bigarren atalean, berriz, gaur egungo ikerketa feministan irekitako erronka batzuk aztertuko ditugu; seguru asko, erronka horietako batzuetan islatuta ikusiko dute ikertzaileek beren burua. Dena den, ez da berariaz ikertzaileei begira sortua: hemen aurkeztuko diren eztabaidek, izan ere, lotura estua dute esku-hartzearen arloko esperientziekin.

Elementu horiek mahai gainean jarri ondoren, partaide izan naizen ikerketa batzuei tartea egingo diet hirugarren atalean, gure lanean aurki ditzakegun zailtasun eta mugen nahiz egin ohi ditugun akatsen berri emateko. Bide horretatik, lan honetan proposatutako erronken zenbait alderdi nabarmendu nahi nituzke, horien konplexutasun guztia atxikitzeko. Bestalde, ikertzaileei adore eman nahi nieke, huts egiteko beldurrak edo erantzukizunaren zamak uzkur ez ditzan: izan ere, beste era batera egiten ikastea prozesu kolektiboa da eta pertsona ausartak behar ditu, prest egongo direnak autokritikarako zentzu zorrotzaz eta partekatzeko eskuzabaltasunez lan egiteko. Azkenik, kontakizun honen hariak ehuntzeko, ikerketa feminista (ekintzailea) oinarri, jatorri eta aztergai duten proposamen eta kezka zenbait aditzera eman nahi ditut.

Esan bezala, eskerrak eman nahi dizkiet Euskal Herriko kideei aukera hau eman izanagatik; bide batez, eskaini nahi diet testu hau kanpaina handietan nahiz sukalde txikietan “giza eskubide” deritzenen alde egunez egun borrokan diharduten guztiei. Mikro-intsumisioak keinu handiak bezain garrantzizkoak edo are garrantzizkoagoak direlako, eta borrokalari izengabeek ezartzen dituztelako gizarte-eraldaketak itxura huts ez izateko oinarriak, eraldaketak sakon sustraitzeko eta pixkanaka sistema kultural eta sozial diskriminatzaileak deuseztatzeko oinarriak.

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet Marta Luxán eta Irantzu Mendia Azkueri, testu honen lehen bertsioari egindako iradokizun eskuzabal eta zuzenketa maitekorrengatik. Eskerrik asko, halaber, SIMReF mintegiko lagunei, sorkuntza eta hazkunde kolektiboko urte hauengatik.

2. Nor bere tokian kokatzen, elkar ulertzeko

Hau da ikerketa metodologiekiko nire kezken jatorria: gizarte-errealitateak errespetuz hartuko dituzten eta generoen arteko erlazioen eta feminismoaren nire ikuspegi zehatzarekin bat etorriko diren bideak topatzea gizarte-errealitate horietara hurbiltzeko (Biglia 2005). Ikastetxe eta unibertsitateetan, zientzia neutroa dela irakasten digute, sarritan: neutroa dela, apolitikoa dela eta interferentziarik ez duela. Eta horrek bultzatuta ulertzen da zientzialariak (pluralean eta gizonezkoztat harturik) metodo jakin bat (hipotetiko deduktiboa) eraginkortasunez aplikatzen trebatutako pertsonak direla, eta trebetasun horri esker lortuko dutela errealitatearen alderdiren bat ezagutzea, edo are kontrolatzea, haiengan fedea duen gizartearen oniritziarekin.

Ipuin tradizionalekin gertatu ohi den moduan, zientziari buruzko kontakizun mendebaldar progresista eta ebolutibo horrek ez du onartzen kontrako iritzirik, eztabaidarik edo zalantzarik. Behin eta berriro errepikatu behar da, mantra bat balitz bezala, egia bihur dadin eta gure hezkuntza-erakundeetan hezitako subjektu guztiek barnera dezaten (Subramaniam 2000). Ipuinek eredu kultural eta genero-arau jakin batzuk transmititzen dizkiguten modu berean, eta esleitu zaigun posizioaren araberako gizarte-ohitura batzuk hartzera bultzatzen gaituzten bezala (Propp 1971), Mendebaldeko zientziak eta haren diziplinek izan eta pentsa litezkeen egia bakarrak sortzen dituzte², eta errealitate jakin bat taxutzen dute horrela, fede zientifikoaren arau estuen barruan (Harding 1996; Haraway 1995).

Zientziaren filosofoek –alegia, epistemologoek– agerian utzi zituzten, aurreko mendearen erdialdera, errealitatearen irudikapenaren gezurrak eta nabarmendu zuten ezagutzaren, zientzien eta haien metodoen gaineko ikuspegiak markatzen duela zer eta nola ezagutzen, ulertzen eta irudikatzen dugun. Khunen arabera (1962), paradigma zientifikoek gidatzen dute jakintzarako hurbilketa oro, eta mugatu egiten dute zer ezagutu litekeen; hala, akats baten ondorioz baino ezin liteke gertatu iraultza zientifikoa maila paradigmaticoan eta ezin gintezke iritsi gure itsutasun partzialaren eraginez orain arte iritsi ezin gintezkeen ulermen batera.

Hala ere, nork defini ditzake dena delako paradigmanen arauak? Nork hartzen du beretzat errealitateari nola begira diezaiokegun eta gure burua nola uler dezakegun definitzeko eskubidea? Epistemologo feministek funtsezko eginkizuna bete dute emakumeek pribilegiadunen elite horren barruan presentzia nabarmen mugatua izan dutela salatzeke garaian, eta, presentzia izan duten apurretan ere, haien presentzia ukatu edo ezabatu egin dela aurkikuntzak egozteko prozesuetan (Lee 2013). Egoera horrek bultzatuta, feminista batzuek emakumezko zientzialari ausarten historia berreskuratzeko saiakera egin dute³, memoria zientifikoak historiak oro har jasandako obskurantismo bera jasan duela-eta (Scott 1986)⁴. Premisa horretatik abiatuta, ahalegin handiak

² Gomendagarria da *Planilandia*, eleberria irakurtzea. 1884an idatzi zuen Edwin A. Abbott matematikari eta apaizak, eta bertan azaltzen du zer-nolako zailtasunak ditugun errealitatea irudikatzeke errealitate hartatik espero dugunetik harago (garai hartako gizartearen antolaketa generizatuaren kritika satirikoa egiteaz gainera). Hemen agertzen da testuaren argitalpen bat: Abbott (1999).

³ Ikus, adibidez, Eveline Fox Keller egilearen lan aitzindaria (1983).

⁴ Emakume jakintsu eta zientzialarien historiari buruzko hurbilpen labur baterako eta Iraultza Zientifikoan parte hartu zuten emakume batzuk ezagutzeko, ikus Anderson eta Zinsser egileen (2009) monografiaren VI. kapitulua.

egin dituzte, eta egiten ari dira gaur egun, emakumeak ezagutza sortzeko gai diren subjektu gisa aitortzeko (Longino 1993)⁵.

Batzuek, enpirista sineskorrenek, uste zuten emakumeek ezagutzen ekoizpen-guneetan presentzia izate hutsak gune horiek aldaraziko zituela; beste batzuek, berriz, harago jo zuten, eta zientziaren androzentrismoa kritikatu zuten; hainbestearinokoa zen androzentrismoa, gizonezko subjektuekin soilik (eta esan beharrik ez dago, noski, gizonezko zuriekin) egindako esperimenduak gizateria osora orokortzea ekarri baitzuen, kasurik larrienen⁶. Kritika horretatik abiatuta, feministek aldarrikatu zuten emakumeak ere “aztergaitzat” hartzea, gizonak izan ez zitezen errealitatea ulertzeko eta definitzeko araua. Aldarrikapen hori berehala zabaldu zen, eta agerian utzi zuen garrantzizkoa zela, halaber, emakumeentzako intereseko gaiak ikergai modura aintzat hartzea, eta azkenik, errealitatearen analisisan eta ulermenean genero-ikuspegia txertatzea (Schiebinger *et al.* 2011). Aldarrikapen horietako lehenak ordura arte entzungor egin zitzaizen espazio eta errealitate jakin batzuk ezagutzeko premiari erantzuten zion (eta bidea eman zuen, esaterako, etxeko indarkeria aitortzeko); bigarrenak, berriz, gure gizarteko botere-harremanak ulertzeko atea zabaldu zuen (genero-indarkerien egiturazko izaera ulertzeko, adibidez, adibide berari jarraituz).

Kritika epistemologiko feministetan, agerian gelditzen da zientziaren neutraltasuna eta objektibotasuna falaziak direla: zientziak oinarri izan duen eta oraindik ere ikerketa askoren atzean dagoen jite sexista ezkutatzeko iruzurrak. Egile batzuek, ordea, harago doaz, eta diote proiektu zientifikoaren erreformak huts egingo duela eta postulatu heteropatriarkalen (eta Ochy Curielek liburu honen 3. kapituluaren dioen moduan, kolonialen) erabateko dekonstrukzioa beharko litzatekeela egoera aldatzeko.

Proposamen epistemologiko feministak ugariak izan dira eta eztabaida interesgarriak sortu dituzte, nekez erreproduzi litezkeenak orrialde gutxi batzuetan⁷. Baina badira, nolana ere, galdera “izar” batzuk, aurrerago aztertuko ditugunak, zeinen inguruan ez baitago erantzun bateraturik; hala nola:

- Atxiki dakieke emakumeei eta beste subjektu gutxitu batzuei posizio epistemiko pribilegiatu bat, bazterretan kokatuta egoteagatik, ikuspuntuaren teoriariek dirudienez aldarrikatzen duten moduan (Harding 2004)?
- Alda daiteke zientzia heteropatriarkala, kolokan jarri gabe haren postulatuak, eta ebidentzien aldeko apustua egin, epistemologo enpiristek bezala (Campbell 1994; Hundleby 2007)?
- Badago metodologia edo metodo feministarik? Eta hala balitz, zer desberdintasun ditu metodo tradizionalekin, emakumeak edo genero-ikuspegia aintzat hartetik harago (Bartra 1998)?
- Egokiagoa da metodologia kualitatiboa metodologia kuantitatiboa baino, errealiterako hurbilpen feminista baterako (Pedrero 2010; Westmarlan 2001)?


⁵ Bidea luzea da, oraindik, eta Europar Batasunean bertan zera aitortzen da: “Programa Markoek berek ere [...] huts egin dute emakumeak gizonak maila berean inplikatzeko, mesedetzeko eta sustatzeko ahaleginean” (European Gender Summit 2011).

⁶ Jite horren larritasunaz jabetzeko, pentsa dezagun jarduteko modu horrek ondorioak zituela, oraindik ere, medikuntzaren diziplinan. Adibidez: infartuari garaiz hautematen zaien kasuak, esate baterako, gutxiago dira emakumeen artean, orain arte akademian erakusten zituzten sintomak tipikoak direlako gizonengan, baina ez emakumeengan (Valls 2006). Etnozentrismoaren antzeko jite bat da, zeinetan oinarrituta jo zen, adibidez, neska-mutil afrikarren koefiziente intelektuala Europakoekin batez bestekotik oso beherakoa, Bineten test ospetsuan oinarrituta.

⁷ Proposamen eta eztabaida horien laburpen aurki daiteke honako honetan: Anderson (2012).

Lehen galderari dagokionez, bat nator Donna Harawayk (1995) emandako erantzunarekin. Hain zuzen ere, ezagutza kokatuen eta partzialen epistemologia (*situated knowledge*)⁸ aurkezten du egile horrek. Era berean, aitortzen du beharrezkoa dela emakume eta subjektu gutxitu gehiagok presentzia izatea ezagutzaren ekoizpen-guneetan, baina ez jakintza gardenagoaren eramaile diren aldetik. Egile horren arabera, pertsonen –zientzialariak barne– errealitatearen ezagutza partzial bat besterik ezin dugu atxiki, eta gure alde aurreko esperientziak, gizarte-posizioak eta abarrek markatuko dute ezagutza hori. Beharrezkoa da, beraz, ekoizpen partzialen askotarikotasunaren aldeko apustua egitea eta kontuan hartzea gure ikuspegiak nola eragiten duen ezagutzen dugun horretan. Ikuspegi horrek, zeinarekin bat bainator, puntu komunak ditu eszeptiko postmodernoen proposamenekin (Hepburn 1999); hain zuzen ere, jardunbide zientifiko heteropatriarkalak desegitearen eta ezagutza nola sortzen dugun birpentsatzearen aldeko apustua egiten dutenekin.

Teoria postmodernoen interpretazio interesatu batek bultzatuta, ordea, testuinguru batzuetan halako laxismo teoriko eta metodologiko bat zabaldu da –“denak balio du”–, eta jardunbide arrazistak justifikatu dira, esate baterako, beste edozein jardunbideren mailako balioa balute bezala, Mary Jaqui Alexander eta Chandra Mohanty egileek (2004) salatu dutenez. Harawayri jarraituz, arazo larri hori saihesteko, argi eta garbi apustu egin behar da ikertzaileek erantzukizunak beren gain har ditzaten. Harawayk dioenez, ezagutza ekoiztea ekintza politikoa da, beti, eta modu kontzientean eta arduratsuan ekoizti behar dugu. Ikuspegi horretatik, *Seminari Interdisciplinar de Metodología de Recerca Feminista* (SIMReF) mintegiak⁹ apustua egin du ezagutzeko prozesua bera, eta ez horrenbeste subjektu ezagueradunak edo aztergaiak, hartzeko ikerketa feministaren ardatz gisa, honako diagrama honetan ikus daitekeenez.



Iturria: SIMReF.

⁸ Gaur egun, *ikuspuntuen teoriak* sarritan bere egiten dute haren proposamena. Hala ere, teoria horien bilakaerak Harawayren planteamenduekiko lotura estutu duela onartu arren, behartu samarra iruditzen zait berrinterpretazio hori.

⁹ SIMReF mintegiari buruzko informazioa zabalteko, kontsultatu webgune hau: www.simref.net.

Hortaz, metodologia feminista bat eratu daitekeela eta eratu beharko litzatekeela esaten dugunean, ez dugu esan nahi orain arte informazioa biltzeko eta aztertzeko erabili diren teknikak baztertu behar direnik, baizik eta ikerketa-jardunbideak koherentea izan behar duela postulatu feministekin eta ikerketaren, testuinguruaren, xedearen eta, jakina, hartutako posizionamendu feministaren berezitasunekin bat etorrira birpentsatu eta birdiseinatu behar dela.

Teoria epistemologikotik metodologiarako urrats horrek, ordea, jauzi handia egitea eskatzen du. Oraindik erreferente gutxi ditugu (are gutxiago, gaztelaniaz)¹⁰ metodologia feministetatik abiatuta ikertzeko pistak ematen dizkigutenak; hori dela-eta, ikertzaile asko “galduta” bezala sentitzen dira (Biglia eta Jiménez 2012). Epistemologia feministek irekitako erronkei arlo teorikoan arlo enpirikoan baino errazago aurre egin dakiekeelako ustea oso zabaldua dago oraindik. Agian arrazoi horrexegatik, berriki nazioartean egindako ikerketek (GenSET 2010; Nazio Batuak 2010) *“iradoki dute beharrezkoa dela nazioarteko akordio bat garatzea oinarrizko ikerketetan eta ikerketa aplikatuetan sexuaren eta generoaren analisiak zeharlerro bihurtzeko metodoei buruz”* (Caprile et al. 2011: 119).

2008. urteaz geroztik, bide horretan aurrera egiten lagunduko duten eztabaida-, konfrontazio- eta analisi-espazio batzuk sortzeko lanean ari gara SIMReF mintegian. Antolatu ditugun jardueretan, espazioak ireki ditugu ikertzaile adituenean beren ikerketen sukaldeak erakutsi diezazkiguten; hau da, irakaspen epistemologiko feministak praktikan jarri dituzten adibideak emateko, eta prozesu horretan aurki ditzakegun kontraesanak eta zailtasunak agerian jartzeko (Martínez et al. 2014; Zavos eta Biglia 2009). Era berean, kideen lanak baliozkotzeko *Peer to Peer* gune modura eratu da SIMReF mintegia, feminismoaren tresna tradizional bat erabiliz: ezagutzen eta esanahien eraikuntza kolektiboa (Puig de la Bellacasa 2002).

Harawayren ildora itzulita (2004), gure xedea da jakintza metodologiko feministak jorratzea, aitortzea zerbait ezagutzen dugunean gure bidez ezagutzen dugula eta, beraz, errealitatearen interpretazio bat sortzen ari garela. Interpretazio hori askotariko kontakizunen bidez (kontakizun partzialak eta testuinguruaren araberakoak) zabaldu daiteke eta zabaldu behar da, eta eskuragarri egon behar du, beste ikertzaile batzuek berrinterpretatu eta beren erara jorra eta sakon ditzaten.

Horregatik, gure apustu nagusietako bat da irakaskuntzarako eta eztabaidarako bideoen eta materialen gordailuak sortzea *creative commons* lizentziarekin¹¹. Horrekin batera, gidaliburu metodologiko feminista bat sortzen ari gara, eta Hegoarekin lankidetzan jardun dugu Ikerketa Metodologia Feministen II. Jardunaldiak antolatzen eta liburu egiten, zeina baita mugari bat gehiago teoriaren eta praktikaren arteko dikotomia deuseztatzeko gure jardunean. Eskuhartzearen arloan lanean dihardutenen ezagutza feminista baliagarriak sistematizatzearen aldeko apustu bat ere bada, ezagutza horiek nekez zehazten baitira jakintza ezagugarri/aitortuta. Horrela praktikan ikerketa prozesuen zorroztasuna sustatuko eta tokiko “munstroen urdailean” konpromiso sozial eta politikoa kitzikatuko dugulakoan gaude¹².

¹⁰ Zer esanik ez, katalanez eta euskaraz, are okerragoa da egoera.

¹¹ Bideoak vimeo kanalean ikusi eta handik jaitsi daitezke: <http://vimeo.com/simref>. Aldi berean, material bilduma bat osatzen ari gara Scribden: <https://www.scribd.com/SIMReF>. Gainera, gidaliburu metodologiko feminista bat dugu “Iabea”.

¹² Eraldatuta ageri da, hemen, Donna Harawayk Estatu Batuetako akademia definitzeko erabilitako “munstroaren urdaila” esapidea.

3. Ikerketa feministei begirako zenbait erronka

3.1. 1. erronka. Ikertzea eta esku hartzea: elkarrekin, baina ez nahasian

Gizarte-eraldaketarekin konprometitutako ikertzaile feminista gisa eta ezagutza ekoizteko eta sistematizatzeko interesa dugun ekintzaile gisa aurrez aurre topatzen dugun lehen erronka bi esparruetan jarduteko gai izatean eta batean nahiz bestean behar adinako zorroztasunari eustean datza.

Feminista garen heinean, jabetzen gara ez dela onargarria ikerketa-beharren eraginez esku-hartze sozialaren konpromiso etikoak eta planteamendu politikoak apaltzea. Litekeena da horri loturiko jardunbide desagokiak edo akatsak egitea, baina nahiko erraz antzeman dakieke, eta oso orokortuta dago kritika.

Aldiz, ez dirudi gauza bera gertatzen denik kontrako noranzkoan. Hau da, gero eta zabalduago dago gure esku-hartzeetan ikerketa egiten ari garelako ustea, nahiz eta esku-hartze horiek ez izan ikerketa modura hartzeko bezain zorrotzak. Zalantzarik gabe, oso positiboa da esku-hartze sozialeko taldeen artean ikerketa-jarduerarekiko interesa berpiztu izana, baita akademian gero eta ekintzaile feminista gehiago egotea ere beren ikuspegi politikoarekin bat etorrira ikertu nahi dutenak. Baina ez dugu ahaztu behar ikerketa egiteko ezagutza sistematizatu eta sakon batzuk ekoizti behar direla ezagutu nahi dugun errealitate bati buruz, ezagutza falta orokorra dagoen edo gehiago jakiteko premia dugun errealitate bati buruz (edo jakintzari ikuspegi berri bat eman).

Ekintza edo esku-hartze sozialari hertsiki loturiko ikerketetan, xede espezifikotzat hartu behar da atal analitikoak, eta ez ekintzaren osagarritzat. Izan ere, alde handia dago zerbait ikertzearen eta ikerketa bat egitearen artean (ez da inola ere gauza bera, adibidez, genero-indarkeriak murrizteko jardunbide pedagogiko bat diseinatzea, aurretiko ezagutzak eta bibliografia abiapuntu harturik, edota kidekoen arteko genero-indarkeriei aurrea hartzeko prestakuntza-dinamika eraginkorrenak zehaztea)¹³. Funtsezkoa da ikerketa baten berezitasunak aitortzea, oinarrizko bi arrazoi hauengatik: jakintza zorrotzen ekoizpena sustatzea, eta horien aitortza erraztea. Esku-hartze batean datu batzuk biltzen badira baina ez bada esku-hartze sistematikoa, oso beharrezkoa eta garrantzizkoa izan liteke, baina zer dela-eta hartu beharko genuke ikerketatzat?

Hortaz, alderdi horri loturiko zenbait zalantza eta erronka ditugu: nola aitortu eta balioa eman ikerketa baten berezitasunei? Nola lortu ezagutza sortzeko prozesuetan ikerketa feminista onartzea? Nola eutsi esku-hartzearen/ekintzaren berezitasunei eta lehentasunei, ikerketa prozesuetan? Eta, zalantza eta erronka horiei heltzeko, funtsezkoa da ikerketa eta esku-hartze/ekintza feministako prozesu kolektibo eta autokritikoak eraikitzea.

¹³ Hona hemen beste adibide argigarri bat: ez dira gauza bera emakumeek hezkuntzarako sarbide librea ez duten toki batean emakumeek hezteko eskola bat ezarri nahi dugularik eskola hori ezarri nahi den testuingurua ezagutzea eta ingurune kultural eta sozial jakin batean emakumeen ezagutzari buruz dauden erresistentzien azterketa sakona egitea, tradizioen interpretazio sexistaren mugak azalera ateratzeko eta emakumeek prestakuntza-guneetarako sarbidea izan dezaten errazteko.

3.2. 2. erronka. Ikertzaileak feministak direla eta zientzia ere feminista dela pentsatzeari uztea

Feminista batzuek zioten emakumeek ekoizitako zientzia ez zela izango hain zientzia diskriminatzailea, emakume diren heinean bazterrean heziak izate hutsagatik; eta beste batzuek oraindik ere uste dute esku-hartze edo ikerketa feminista egiteko baldintza beharrezko eta nahikoa dela feminista izatea. Are gehiago: batzuen aburuz, jarrera pertsonal eta politikoko horrek bide emango luke, berez, inolako jiterik ez sortzeko eta inongo subjekturik ez diskriminatzeko.

Urteak dira feminista beltzek eta lesbianek agerian utzi dutela teoria eta jardunbide feminista askoren elitismoa eta partzialtasuna (are gehiago, arrazakeria edo heterozentrismoa)¹⁴. Nola liteke, bada, oraindik uste izatea jite ororen eraginpetik aske jarduteko gai garela? Maizegi, gure etikan eta kulturaren oinarrituta beste talde batzuei laguntzeko asmoa duten esku-hartze eta ikerketak abian jartzen dira, gai ez garelarik talde horien eragiletza errespetatzeko edo gure ekintzek pertsonen bizitzan dituzten bigarren mailako ondorioak ebaluatzeko ere. Alderdi horretatik, garrantzizkoa da “bertan goxo” ez dezagun, eta gure ikerketa-prozesuarekiko autokritika zorrotza egin dezagun beti, hondamendia ekar baitezake borondate on hutsak.

3.3. 3. erronka. Kuantitatu-kuali antinomia deuseztatzea

Gizarte zientzietan positibismoari egin zaizkion kritikak abiapuntu hartuta, feminismoan mesfidantza nagusitu da ikerketa kuantitatiboari buruz eta, horrekin batera, metodologia kualitatiboak berez kritikoagoak eta ikuspegi feministatik hurbilagoak direlako lilura zabaldu da. Egia da estatistika, izenak berak adierazten duenez, herriak kontrolatzeko “estatuaren zientzia” modura asmatu dela, orobat da egia metodologia kualitatiboak ere feministak ez diren jardunbideetarako erabil litezkeela. Hala, genero-indarkeriaren biktimei buruzko neurketak, adibidez, funtsezkoak izan dira gizarte-gaitz horren aitortza politikoa lortzeko¹⁵, eta, aldiz, feministatik ezertxo ere ez duten ikerketa kualitatiboak egiten dira, esate baterako, gurasoen alienazio sindromeari “hautemateko” (Baker 2005). Are gehiago, ikerketa kualitatiboak egitea errazagoa delako ustea zabaldu da, eta ikerketa horien erabilera oso kaltegarriak ekar litzake horrek (pentsa dezagun, adibidez, zer kaltegarria izan daitekeen taldeen kudeaketan adituak izan gabe arrazakeriari buruzko eztabaida-talde heterogeneo eta etnia anitzeko bat antolatzea).

Hori guztia dela-eta, ikerketa feministaren esparruan zabalik dago kuantitatibo-kualitatibo dikotomia deuseztatzeko eta ikerketaren helburuetarako eta ikerketaren testuinguru espezifikorako ikuspegi eta teknika egokienak hautatzen jakiteko erronka.

3.4. 4. erronka. Genero-ikuspegiaren ondorio makurrak

Gaur egun, asko ugaritzen ari dira genero-ikerketa deritzen ikerketak Espainiako estatuan. Arlo horretako lehen lanak XX. mendeko laurogeiko hamarraldian egin ziren (Álvaro 2005; Ortiz 2005). Baina zer gertatzen ari da, benetan, esparru horretan? Hona hemen adibide bat: psikologian gako-hitz modura “genero” hitza duten lan gehienetan, “sexu”arekin nahasten da hitz hori, eta gizonen eta emakumeen artean analisi berezia egitea proposatzen dute, edo genero-indarkeriez dihardute (Biglia 2011), eta estereotipo heteropatriarkalak erreproduzitzen dituzte (Ferrer eta Bosch 2005). Dirudienez, genero-indarkeriaren arazoari buruz ikerketak

¹⁴ Kritika horiek berrikusteko, honako hauek kontsulta daitezke: Angela Davis (2004), Bell Hooks *et al.* (2004) eta Mercedes Jabardo (2012).

¹⁵ Datuak biltzeko parametroak eta moduak zehaztuz jarrai dezakegu eta jarraitu beharko dugu, noski (Casado *et al.* 2012; European Union Agency for Fundamental Rights 2014), baina ukaezina da zinez baliagarriak izan direla.

egiteko finantzaketa eta interes *politiko* handiagoa izateak zuzenean eragin du gai horiei buruz sentibera ez diren pertsonen gai horiei buruzko ikerketak eta artikulak lantzeko joera zabaltzea (Biglia eta Jiménez 2012).

Bestalde, lan feministek inola ere ez dute jasotzen genero-paradigmaren barruan kokatutako edo emakumeei buruzko lanek adinako onarpenik (Arranz 2004). Hain zuzen ere, genero hitza erabiltzea gaurkotasunarekin lotuta dago, eta, aldiz, feminismo hitza baztertzeko dute, zaharkituta dagoelakoan (McRobbie 2009).

Generoaz jarduteak berarekin ekarriko lukeen berdintasunari buruzko diskurtso horiek, ordea, ez dute gogoeta egiten berdintasunerako erdua eraikitzeke oinarri hartu diren balioei buruz (balio androzentriko, sexista, heteronormatibo eta arrazistak, besteak beste), eta zientzien ustezko neutraltasunaren aldarrikapenari eusten diote. Horren arabera, genero hitza onuragarria da ikerketa feministentzat, edo kaltegarria? Ez daukagu galdera horri erantzun uniboko bat ematerik, baina ukazina da nahasi egiten direla metodologia feminista erabiltzea, genero-ikuspegia hartzea eta emakumeei edo feminitasunari loturiko gaiei buruzko ikerketa egitea, baita espazio akademiko feministetan ere. Ez da nolana hiko erronka, hortaz, jardunbide horiek eta bakoitzaren nondik norakoak bereiztea.

3.5. 5. erronka. Ikerketa kokatuaren erronka

Ezagutza kokatuaren epistemologian oinarritzen direla dioten ikerketa asko –Espainiako estatukoak, bereziki– posizionamendu propioak “izendatzera” mugatzen dira, posizionamendu horiek jakintzen ekoizpenean nola eragiten duten aztertu ordez. Funtsean, eraldatu edo murriztu egiten dute ikerketak kokatzeko proposamena, eta, horren ordez, “norberaren ziborrari begiratzeko” diote irakurlearen aurrean. Are gehiago, ikerketa autozentratuekiko interes berantiarak¹⁶ sendotu egiten du individualismo neoliberalak, nor bere burutik abiatzean datzan politika feministarekin nahastuta.

Alde batetik, akademiak hizkuntza postmodernoari ematen dion garrantziaren ondorioz, pentsa liteke ezagutza kokatua sortzeko nahikoa dela gure buruaren kontakizuna egiteko terminologia konplexu eta arranditsua erabiltzea; eta, bestetik, ikuspegi kokatua praktikan jarri duten adibideen faltak erreferentziarik gabe uzten ditu proposamen epistemologiko hori seriotasunez aplikatu nahi dutenak. Hortaz, erronka irekia da jardunbide hori saiatzen joatea eta arrakasta duten nahiz huts egiten duten adibideen zabalkundea sustatzea, horietatik ikas dezagun.

3.6. 6. erronka. (Ez) ordezkatzea testuinguru interseksional batean

Zientziaren kritika feminista klasikoetako bat da *gizonezkoek*, beren burua eredu bihurturik, haiei baimenik eskatu ere egin gabe irudikatu dituztela *emakumeak*. Gainera, feminista “beltzek” eta lesbianek salatu dute akademiko zuriek eskubidea dutela beste guztiei buruzko teoriak sortzeko, eta, aldiz, talde zapalduak izugarritzko borroka egin behar izaten dutela beren ezagutzei teoriaren maila aitortzeki. Hain zuzen ere, gizon-emakume zurien enuntziatio-guneetan modu akritikoan loturiko abstrakzio teorikoen adibide praktikoko soiltzat hartu ohi dira talde gutxituen ekarpenak. Ezagutzen ekoizpen feministen testuinguruan, horri gehitu behar zaio feminista zuri mendebaldarren ikerketak termino arrazializatuetan kodetzearen kritika. Horregatik, funtsezkoa da talde gutxituak ezagutzen ekoizpen-prozesuetan protagonista izatearen aldeko apustua egitea.

¹⁶ Lehenengo autoetnografiak izugarri iraultzaileak izan ziren zientzia tradizionalen dagokienez. Gaur egun, teknika onartua da antropologiaren moduko diziplinetan, eta, beraz, teknikaren aukeratik harago jo behar du haien izaera eraldatzaileak.

Inoren ahotsa ordezteko arriskua ekiditeko, berebiziko garrantzia izan du ordezkagarritasunaren kritika feministak. Hala ere, bi tentsio nabarmentzen dira, gaur egun, auzi horretan. Lehenik eta behin, ezin dugu ahaztu gero eta errealitate elitistagoa bihurtzen ari dela ikerketan jarduteko aukera izatea –ez soilik modu profesionalean, baizik eta ekintzailletza-guneetan–. Hain zuzen ere, askotan gertatu izan da beste subjektibotasun batzuekin baterako ikerketak egiten saiatu izana eta zeregin hori benetan modu kolektiboan gauzatzeko ezintasuna eta, neurri batean, interesik eza topatu izana (Pantera Rosa, 2004). Ordezpena eragoztearren, gureaz bestelako kolektibitateak edo errealitateak ikertzeari uko egin behar ote diogu?

Bestalde, ikuspegi interseksionala gure egiten badugu, jabetzen bagara diskriminazio-ardatzak gure gorputzean nola gurutzatzen diren, horrek “bakarrak” egiten gaituela ohartuko gara. Horregatik, gure kolektibitateak soilik ikertuz ere ezingo dugu saihestu nola edo hala ez ordezteko subjektibitate edo/eta kolektibitate espezifikoak. Agian horrexegatik, aitortu beharko genuke ezagutzak ekoizten ditugunean beti ari garela errealitateak eta subjektuak “ordezkatzen”. Hortaz, jabetu beharko genuke zertan datzan ordezkatzeari, zer erantzukizun dakartzan, jardunbide hori ukatzen tematu ordezkatzeari. Gakoa ez baita beste batzuen izenean hitz egitea eta subjektibitate eta kolektibitate gutxiak gutxiesten horrela, baizik eta aitortzea ikerlana gauzatzeko ari garen subjektuen hitzen bozgorailu izateko eginkizuna gure gain hartzen dugunean ez gaudela haien mezua eraldatzen salbu.

3.7. 7. erronka. Interseksionalitatea

Nola txertatu analisi interseksionala gure lanean? Nola ulertu benetan zertan den interseksionalitatea, gure interseksionalitatea esperimendatzeaz eta gure lagunena partekatzeaz¹⁷ harago, beste subjektu batzuekin mestizaia gauzatzeko hain aukera gutxi izanik? Nola lortu interseksionalitatea ez mugatzea espazio teoriko eta analitikoetara, baizik eta, alderantziz, gure ikerketen prozesu osoan gorpuztea?

Erronka zabala da, zinez, eta lan espezifiko eta kolektiboa eskatzen du erronka horri praktikan aurre egiteak. Ez dut gogoeta honetan asko luzatu nahi, halere, nire ustez arrisku bat dutelako eztabaida teorikoei, alegia, erronka honen konplexutasuna sinplifikatzeko arriskua, zeinetan izan behar baitute funtsezko egitekoa gure gorputzen eta bizitzaren materialitateak.

¹⁷ Askotariko diskriminazioak bizi ditugun arren, subjektu pribilegiatuak izaten jarraitzen dugu, munduko biztanleriaren sektore oso zabalekin alderatzen bagara.

4. Sukaldean sartuta, adibide praktikoak

Atal honetan, labur-labur azaldu nahi ditut ikerketa-metodologia feminista praktikan jartzeko zailtasunei eta erronkei buruzko gogoeta gorpuztu batzuk.

4.1. 1. kasua. “Ahalduntzeko” premiak eta zerbitzu publikoak¹⁸

Kasu honetan, *La intervención socioeducativa grupal en los puntos de información y atención a las mujeres (PIAD): análisis de necesidades y propuestas de actuación*¹⁹ izeneko ikerketan dute jatorria gogoetek. Ikerketa hori Bartzelonako Udalak kudeatutako Puntos d’Informació y Atención a les Dones (PIAD) arreta-guneen hurbileko ezagutzatik abiatuta diseinatu zen; arreta-gune horien helburua emakume etorkin edo/eta gazteen (18 eta 35 urte bitartekoen) intereseko talde lanak eskaintzea da, zerbitzurako sarbide kaskarra izaten baitute oro har.

Ikerketa gauzatzeko egiturazko lehen muga denbora izan zen; hamabi hilabete besterik ez genituen ikerketa egiteko, prestakuntza-dinamikak proposatzeko eta memoria idazteko. Alde batetik, heterogeneitate handia nabarmendu zen ikerketaren parte ginen aldeek prozesuaren elementu jakin bati edo besteari egozten diogun pisan: ikertzaileek uste genuen gomendioak diseinatzeari ekin aurretik ezinbestekoa zela beharrei ongi antzematea; eta inplikaturak zeuden administrazioek, berriz, emaitza praktikoa aplikagarriak eta transferigarriak bizkor samar lortzeko premia zuten.

Hortik abiatuta, informazio bi fasetan biltzea erabaki genuen. Lehen fasean, azterketa fasean, elkarrizketak egin zitzaizkien PIAD zerbitzuko kargudun teknikoei eta politikari arduradunei, eta eztabaida-taldeak antolatu ziren zerbitzu horretan egunez egun emakumeei arreta ematen ziharduten teknikariek. Bigarren fasean, fase diagnostikoan, inkesta bat egin zitzaizen zerbitzua erabiltzen zuten emakumeei eta gazte edo/eta etorkinen elkarteei, eta elkarrizketak egin zitzaizkien, halaber, zuzenean talde horiekin diharduten elkarte eta entitateen arduradunei. Hauxe zen asmoa: erabilgarri genuen denbora laburrean ahalik eta ikuspuntu gehien biltzea, subjektuen posizio kokatua aintzat hartuta.

Adituei egindako elkarrizketetan, argi eta garbi gelditu zen emakumeek (zehazki, etorkinak edo/eta gazteak) oinarritzko beharrei erantzuteko eskatuz (lana, etxea, zerbitzuak, lege eskubideak, etab.) jo ohi zutela, sarritan, zerbitzuetara eta GKEetara. Nolanahi ere, behar horiei ezin zitzaizen aurre egin PIAD zerbitzuak eskaintzen zituen talde-lanen bidez. Hala, inkesta diseinatzeko garaian, literaturan nahiz azterketa-fasean bildutako iritziak oinarri harturik, genero-rolak eta botere-erlazioekin zuzenean loturiko beharrak aukeratu genituen, analisi feministaren ildotik.

¹⁸ Ikus Biglia, Donoso eta Sánchez (2010).

¹⁹ Ikerketa horretan, koordinazio-lanetan jardun dut Trinidad Donosorekin, eta bertan parte hartu dute Ines Massot, Edurne Jiménez, Angelina Sánchez eta Jacqueline Monardesek. Bartzelonako Diputazioaren “Ajuts a la recerca Francesca Bonnemaison 2008” laguntzari esker egin da ikerketa. Proiektu horren memoria kontsultatzeko: <http://www.diba.cat/documents/233376/233762/dones-descarrega-barcelona-pdf.pdf>

Horrek tentsio latzak eta elkarri lotuak ekarri zituen. Lehenik eta behin, ebatzi gabeko oinarrizko beharrak eta behar materialak badirela jakinik arlo sinbolikoko beharretan arreta jartzeak zerbitzu publikoek behar horiekiko erantzukizuna alde batera uztea justifika dezake. Ildo horretatik, kezkarria da emaitzak “adabakiak jartzeko” erabiltzeko arriskua; hau da, emakumeei laguntzeko ekintzak egitea, baina berdintasunik ezaren egiturazko izaeran *focusa* jarri gabe. Bigarrenik, hautemandako behar horiei erantzuten saiatzen diren PIAD zerbitzuetako talde-lanetan parte hartzeko emakumeek zituzten zailtasunak interesik ezaren, nahirik izatearen eta parte hartzeko edo ahalduntzeko gogorik ezaren ondorioztat interpreta litezke, jarrera elitista eta paternalista batetik.

Beste tentsio bat izan zen Bartzelonako emakumeen beharrei buruzko elkarrizketak erakundeetako eta GKEetako kideekin bakarrik egin ahal izan genituela, aurrekontuak eta denborak ezarritako mugen ondorioz. Horrek protagonismoa kendu zien zuzeneko interesdunei, eta akats handia izan zen, sarritan ikusten baitira aurreiritzi eta estereotipo generizatuak eta arrazializatuak profesionalen artean. Elkarrizketa horietatik ateratako adibide batzuek argi erakusten dute kultura ez-autoktonoen estereotipazioa, baita emakumeen eragiletzaren infantilizazioa eta aitortzarik eza ere: “*Era honetako emakumeak*”; “Oro har, gizarteratzearekin loturiko premiak dituzte... *gu ohartzen gara* lehenik prestakuntza jaso behar dutela”; “Inor ez zaizu etortzen esplizituki esanez harremanak behar dituela, baina nik uste dut garrantzizkoa dela, *kultura jakin batzuetako emakumeek* beren kulturetako eta familiako kideekin besterik ez baitute izaten harremana”.

Aurreko guztia azalduta, zalantza kritiko batzuk utzi dizkigute esperientzia horiek: zer zentzu du zerbitzu publikoak hobetzeko ikerketak egiteak, ez badago diskriminazioa eragiten duten egiturak eraldatzeko borondate politikorik? Behar “konplexuei” (sekundario izendatuak, oker bada ere) arreta emateko zerbitzuak sortzen ditugunean, ez ikusiarena egiten diogu oinarrizko behar materialak dituzten talde gutxituenganako diskriminazioari? Generoari buruz sentiberatutako berriemaile gakoak bilatu beharko genituzke? Segurua al da ahalduntzearen ikuspegitik ikerketak egitea ezin dela bihurtu gizarte-kontrolerako baliabide? Eta nola bizi kontraesan horien guztien artean, immobilismoari amore eman gabe?

4.2. 2. kasua. Lankidetzak-ikerketak

GAPWork. Mejorando la intervención y derivación en violencias de género a través de la formación de profesionales que trabajan con jóvenes europar ikerketa-ekintzan ²⁰, prestakuntza-diseinuak landu ditugu hizkuntza, jarrera eta portaera sexistak eta lesbo-trans-homofoboak hobeto identifikatzeko eta ezbaian jartzeko. Hauek izan dira proiektuaren berrikuntza nagusiak: genero-indarkerien esparru zabala kontuan hartzea (Biglia 2007); ebaluazio-prozesu oso eta sistematikoari garrantzia ematea; irizpide pedagogiko feministei jarraitzea (Luxán eta Biglia 2011), eta ikuspegi interseksionaletik jardutea (Platero 2012).

Aurrez aurre topatu dugun lehen tentsioa ikertaldearen eta prestakuntzaren arduraz zuten elkarrean²¹ arteko lankidetzak izan da. Alderdi horretatik, xaloezi jokatu dugu, pentsaturik militantzia feminista partekatzeak kontzeptuen ulerkera komun bat ekarriko zuela ezinbestean. Unibertsitatean

²⁰ Europar Batasuneko Daphne programaren barruan diruz lagundutako proiektua da. Programa horretan, Brunel Universityko Pam Alldred da buru, eta nik (URV) koordinatzen dut Espainiako estatuan. Informazio gehiagora, ikus: www.gapwrk.cat eta <http://sites.brunel.ac.uk/gap>. Atal honetan aditzera ematen diren proiektuari buruzko gogoeten edukia lan honen egilearen ardurapekoa da, oso-osorik, eta inola ere ez dira hartu behar Europako Batzordearen iritzi modura.

²¹ Candela eta Tamaia elkarte feministak.

lanean dihardugun eta organizazioetan lanean dihardutenen hizkuntza eta behar praktikoak ez dira berdinak, ordea: denbora, teoriaren eta praktikaren arteko erlazioa, proiektuan murgiltzeko moduak eta hari buruzko igurikapenak ez ziren berdin bizi espazio batean eta bestean.

Kontua gehiago nahasteko, zailtasunak izan dira botere-erlazioen oreka kudeatzeko, proiektu bertikalista izan nahi ez duen arren ezin baitu izan guztiz horizontala ere, haren osaeragatik beragatik. Elementu hauek zaildu dute oreka hori, nagusiki: unibertsitatea gizarte-esperientziak fagozitatzen dituen espaziotzat hartzearen ondoriozko erresistentziak, ikertzailea erakundearekin identifikatzea dakartenak; kanpo-presioak, hala nola, nazioartean markatutako datak, maila lokalean lanean ari direlarik bestelako premia batzuk izan ditzaketenen jarduera mugatzen duten heinean; eta esperientziarik eza, eragotzi egin baitigu hasieratik ikustea eginkizun eta ardura guztiak eta, horren ondorioz, lausotuta gelditu baitziren rol batzuk. Esperientzia horretan, gure larruan bizi izan dugu lankidetzarako zailtasunak, eta ondorioztatu dugu premiazkoa dela botere-erlazioak kudeatzeko molde berriak aurkitzea, ekintza (praktika) eta gogoeta (teoria) paraleloan landu nahi diren testuinguru batean.

Antzera gertatu da, berezitasunak berezitasun, ikerketan inplikaturako pertsonen jatorrien ondoriozko zailtasunekin. Arlo honetan, erronka nagusia ez da izan ulerkera kontzeptuala, baizik eta beste alderdi batzuk, hala nola, norberaren prestakuntza-praktika eta praktika enpirikoa, desberdintasun kulturalak eta ingelesaren hizkuntza-inperialismoa, arinkiegi onartzen baita ondare kultural bera ez duten eta hizkuntza hori berdin menderatzen ez duten pertsonak berdin ulertzen dutela.

Era berean, zailtasunak izan ditugu azterketa konparatiborako elementuak aukeratzeko eta tokian tokiko berezitasunak errespetatzeko. Adibidez, prestakuntzen ebaluaziorako galdetegien atal komunean, testuinguru jakin batean funtsezkoak ziren itemak ia itzulezinak ziren beste testuinguru batzuetan, nazio bakoitzean esangura jakin bat zuten elementuak ziren heinean. Ez da izan galdetegiarren tresna diseinatzeko zailtasun bakarra, gainera.

Kataluniari dagokion ikerketaren atalean, genero-indarkeriekin loturiko ikaskuntzei hautemateko balioko zuten elementuak aurkitu nahi genituen (ez soilik pertzepziorakoak). Horretarako, genero-indarkeriei loturiko mitoei buruzko item batzuk txertatu genituen, prestakuntzaren aurretik eta ondoren proposatu nahi genituenak. Baina ohartu ginen diskurtso politikoki zuzena sakon errotuta zegoela parte-hartzaileen artean, eta, hala, baztertu egin behar izan genituen galdera horiek, prestakuntzaren lehen itzuliko parte-hartzaileekin erabili ondoren. Orduan, iruzkintzeko istorio labur batzuen bidez saiatu ginen ikaskuntzei hautematen. Eta horrek bidegurutze batera eramán gintuen: egiaztatzea erantzunen analisi kualitatiboak benetan aukera emango ote zigun ikaskuntzei hautemateko.

Antzeko zailtasunak sortu zitzaizkigun bildutako informazio ugari horretatik gure datu-gorputza osatzen duten eta ez duten informazioak bereizteko. Hau da: non amaitzen dira datuak? Nola triangelatu datuak, horien artean hierarkiarik ezarri gabe, datu guztiak errespetatuz, eta batzuetan ikuspuntu desberdinak adierazi dituzten subjektuak errespetatuz? Adibidez, nola kudeatu prestatzaileek eta behatzaileek, alde batetik, eta partaideek, bestetik, ikaskuntzari buruz duten pertzeptzio desberdina?

4.3. SIMReF mintegiaren esperientzien zenbait adibide

Ikerketa feministarako diru-laguntzak bilatzeko zer-nolako egiturazko zailtasunak topatu ohi ditugun erakusteko, biziki argigarria da zer erantzun jaso genuen *Epistemologías feministas y procesos de creación de conocimiento en Ciencias Sociales: análisis de metodologías y procesos*

*de investigación en pos de la definición de criterios de validación situados*²² izeneko proposamena egin genuenean. Argudio hauxe eman ziguten laguntza ukatzeko: “*Talde eskatzailearen asmoa da ikerketa-metodologia feminista bat definitzea eta horri buruzko gomendioak sortzea. Argudia daiteke, ordea, metodo zientifikoa berdina dela jakintza-arlo guztietarako. Eta proposamenetik ondorioztatzen da taldea ez dagoela baieztapen horrekin ados; baina hari aurka egin beharko ziokeen*”. Kritika horretan, argi dago aztertzaileak nahastu egin dituela epistemologia feminista eta genero-ikerketen arloa, seguru asko, ez delako onartu paradigma eta epistemologia desberdinak daudela. Erronka honi aurre egin beharko diogu, hortaz: nola ikertu epistemologia/metodologia feminista oinarri harturik, positibismoan sustraitutako diru-laguntzen testuinguru batean?

Elementu aipagarria aurkeztu zuen, halaber, Nuria Vergé *Herramientas on-line para el estudio y la visualización de los feminicidios* hitzaldian²³, zeinetan mintzo baita ikerketa feministaren arloko autozaintzaz. Bere esperientzian –genero-indarkeriei buruzko egunkari-albisteen analisisia egin du, bakarka, feminizidioak azalera ateratzeko, modu interaktiboan, AREA on-line tresnaren bidez–, une mingarri eta etsigarri asko izan ditu, eta ikerketa-prozesuetan norberaren burua zaintzearen garrantziaz gogoeta egitera eraman dute.

Bestalde, Inés Testonik, *Evaluación del uso de los psicodramas en procesos de empoderamiento de mujeres sobrevivientes de violencias de género* hitzaldian²⁴, agerian utzi zuen zein garrantzizkoa den ikuspegi feministatik lantzea ikuspegi sexistaren eraginpean oker interpretatzeko arriskua duten gaiak. Testonik aurkeztutako kasuan, bereziki aipatzen da genero-indarkerietatik bizirik irtendakoek aukera izatea indarkeria jasan zuten urte horietan amekin izandako erlazioa problematizatzeko eta balizko ondoezak lantzeko, horregatik inor erruztatu gabe.

Era berean, Jane Callaghanek, *Comprendiendo agencias y resistencias: niñ@s en situaciones de violencias doméstica* hitzaldian²⁵, azalera atera ditu oro har ahots juridikorik nahiz sozialik gabe utzi ohi diren subjektuei entzuteko zailtasun metodologikoak. Horregatik dihardu etxeko abusuak ikertzeko gazteekin banakako elkarrizketa nahiz argazkien ahozko kontakizunerako talde-prozesu nahiz bakarkako prozesuak erabiltzearen aukera eta erronkez.

Aipatzekoak dira, halaber, Elena Casado eta Amparo Larsen, *Conflictos y violencia en pareja: Apuntes metodológicos* izenburuko aurkezpenean²⁶ azaltzen baitute zein garrantzizkoa den ikerketa batean gertatutako ezustekoek ez gaitzaten ustekabeen harrapatu. Haiek adierazi dutenez, gerta liteke diseinu metodologikoan egindako akats bat informazio sorta ezusteko eta biziki akuilagarrien iturri izatea, akats hori hauteman eta aztertu ondoren.

Azkenik, Eva Alfamak, *Medir la violencia de género: definiciones, indicadores y problemas* hitzaldian²⁷, gonbita egiten ditu adierazle estatistikoak eraikitzeke zailtasunez gogoeta egin dezagun. Berriaz azpimarratzen du kontu bereziz aukeratu behar direla adierazleak eraikitzeke erabiliko diren elementuak, errealitate beraren elkarren oso bestelako irudikapenak egin baitaitezke, aukeratutako adierazleen arabera.

²² 2012an aurkeztu genuen, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Funtsezko Ikerketa Ez Orientatuko Proiektuen Laguntzen deialdian.

²³ Atal honetan aipatutako beste hitzaldi batzuk bezala, SIMReF mintegiak Emakumearen Institutuaren laguntzarekin 2014an antolatutako *Violencias de género desde la metodología de investigación feminista* eztabaida-foroen baitan egin zuen hitzaldi hori. Hemen kontsulta daiteke hitzaldiaren bideoa: <http://vimeo.com/94944179>.

²⁴ Hemen ikus daiteke bideoa: <http://vimeo.com/97847178>.

²⁵ Hemen ikus daiteke bideoa: <http://vimeo.com/97650642>.

²⁶ Hemen ikus daiteke bideoa: <http://vimeo.com/110128897>.

²⁷ Hemen ikus daiteke bideoa: <http://vimeo.com/115172678>.

5. Proposamenak eta kezkak

Kapitulu hau amaitzeko, etorkizunera begirako apustu batzuk aipatu nahi nituzke, labur-labur.

- a) Ikertzaile-sarea eraikitzea eta sendotzea (ez egoteko bakarrik, talde-ezagutzak sortzeko, etab.).
- b) Ezagutzak sistematizatzea (praktikaren bidez sortutakoak barne)
- c) Akademiaren eta zuzenean esku hartzeko espazioen arteko erlazioak birpentsatzea.
- d) Akademian nahiz esku-hartzeetan (politikoak nahiz sozialak) diharduten feministen arteko lankidetzaren sareak sendotzea.
- e) Ezagutzak zabaltzea (praktikaren bidez sortutakoak barne), horietan sakondu ahal izateko.
- f) Ikerketaren sukaldeari buruzko hitzaldi gehiago argitaratzea eta antolatzea, hasiberriek saiakeren, akatsen, aukeren eta abarren berri izan dezaten.
- g) Belaunaldien eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzea.
- h) Gure kontraesanak aitortzea, lantzea, baina horiekin batera bizitzea, betiere.
- i) Diru-laguntzek gure jardueran (ikerketan nahiz esku-hartzeetan) duten eragina birpentsatzea.
- j) Gogoeta egitea ikuspegi feministak sendotzeko aukerari buruz, ikuspegi oportunistak alde batera utzirik.
- k) Gizarte-eraldaketan eragiteko dugun borondateak kontrol soziala areagotzea ekar ez dezan zaintzea.

Eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan, ezta? Agian, orain zuk kontaktzen baduzu, kontakizun berri bikain bat sortuko duzu...

Bibliografia

ABBOT, Edwin A. (1999): *Planilandia. Una novela de muchas dimensiones*, Torre de Viento, Mallorkako Palma eta Bartzelona (1. argitalpena ingelesez, 1884an), eskuragarri: <http://mimosa.pntic.mec.es/jgomez53/docencia/abbott-planilandia.pdf>

ALEXANDER, Mary Jaqui eta Chandra MOHANTY (2004): "Genealogías, legados, movimientos", HOOKS, Bell *et al.* (2004): *Otras inapropiables. Feminismos desde la frontera*, Traficantes de Sueños, Madril, 137-184.

ÁLVARO PAGE, Mariano (2005): "Los estudios de género y de las mujeres: conceptos, necesidad y vigencia. Su vinculación con el movimiento feminista", MAQUEIRA, Virginia *et al.* (arg.): *Democracia, feminismo y universidad en el siglo XXI*, Universidad Autónoma de Madrid, Madril, 209-214.

ANDERSON, Bonnie eta Judith ZINSSER (2009): "Los llegados del renacimiento: el humanismo y la revolución científica", ANDERSON, Bonnie eta Judith ZINSSER (ed.): *Historia de las mujeres. Una historia propia*, Crítica, Bartzelona, 553-572.

ANDERSON, Elizabeth (2012): "Feminist Epistemology and Philosophy of Science", ZALTA, Edward (arg.): *The Stanford Encyclopedia of Philosophy*, eskuragarri: <http://plato.stanford.edu/archives/fall2012/entries/feminism-epistemology/>

ARRAN LOZANO, Fátima (2004): "Las mujeres y la universidad española: estructuras de dominación y disposiciones feminizadas del profesorado universitario", *Política y Sociedad*, 41, 223-242.

BAKER, Amy J. L. (2005): "The Long-Term Effects of Parental Alienation on Adult Children: A Qualitative Research Study", *The American Journal of Family Therapy*, 33(4), 289-302.

BARTRA, Eli (ed.) (1998): *Debates en torno a una metodología feminista*, Universidad Autónoma Metropolitana, Unidad Xochimilco, México.

BIGLIA, Barbara (2005): *Narrativas de mujeres sobre las relaciones de género en los movimientos sociales*, Doktorego Tesia, Universidad de Barcelona.

- (2007): "Resignificando 'violencias(s)': obra feminista en tres actos y un falso epílogo", BIGLIA, Barbara eta Conchi SAN MARTÍN (arg.): *Estado de Wonderbra: entretejiendo narraciones feministas sobre las violencias de género*, Virus, Bartzelona.
- (2011): "Feminisms and Psychology in the Contemporary Spanish State", RUTHERFORD, Alexandra *et al.* (arg.): *Handbook of International Feminisms*, Springer, Nueva York, 83-107.
- (2012): "Corporeizando la epistemología feminista: investigación activista feminista", LIÉVANO FRANCO, Martha eta Marina DUQUE MORA (arg.): *Subjetivación femenina: investigación, estrategias y dispositivos críticos*, Universidad Autónoma de Nuevo León, Nuevo León, 195-212.

– eta Edurne JIMÉNEZ (2012): “Conformidades y disconformidades en habitar los márgenes de la investigación social”, ONGHENA, Yolanda eta Alvise VIANELLO (arg.): *Políticas del conocimiento y dinámicas interculturales. Acciones, innovaciones, transformaciones*, Universidad de Naciones Unidas y CIDOB, Bartzelona, 103-115.

CAMPBELL, Richmond (1994): “The Virtues of Feminist Empiricism”, *Hypatia*, 9, 90-115.

CAPRILE, Marina *et al.* (2011): “Introduction to the Special Issue. Gender and Science: Old Challenges, New Approaches”, *Brusell Economic Review*, 54(2-3), 108-129.

CASADO APARICIO, Elena, Antonio GARCÍA GARCÍA eta Fernando GARCÍA SELGA (2012): “Análisis crítico de los indicadores de violencia de género en parejas heterosexuales en España”, *EMPIRIA. Revista de Metodología de las Ciencias Sociales*, 24, 163-186.

DAVIS, Angela (2004): *Mujeres, clase y raza*, Akal, Madril.

EUROPEAN GENDER SUMMIT (2011): *Manifesto for Integrated Action on the Gender Dimension in Research and Innovation*, eskuragarri: http://www.gender-summit.eu/index.php?option=com_content&view=article&id=278&Itemid=42

EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS (2014): *Violence against women: an EU-wide survey. Main results report*, Publications Office of the European Union, Luxemburgo.

FERRER, Victoria A. eta Esperanza BOSH FIOL (2005): “Introduciendo la perspectiva de género en la investigación psicológica sobre violencia de género”, *Anales de psicología*, 21(1), 1-10, eskuragarri: http://www.um.es/analesps/v21/v21_1/01-21_1.pdf

FOX KELLER, Eveline (1983): *Feeling for the organism: The life and work of Barbara McClinton*, Freeman, San Francisco.

GENSET (2010): *Recommendations for Action on the Gender Dimension in Science*, Portia, Londres.

HARAWAY, Donna (1995): *Ciencia, cyborg y mujeres. La reinención de la naturaleza*, Cátedra, Madril.

– (2004): *Testigo_Modesto@Segundo_Milenio. HombreHembra@_Conoce_Oncoración@*, Editorial UOC, Bartzelona.

HARDING, Sandra (1996): *Ciencia y feminismo*, Morada, Madril.

– (2004) (ed.): *The feminist standpoint theory reader*, Routledge, Nueva York.

HEPBURN, Alexa (1999): “Postmodernity and the politics of Feminist Psychology”, *Radical Psychology*, 1(2), eskuragarri: <http://www.radicalpsychology.org/vol1-2/hepburn.html>

HOOKS, Bell *et al.* (2004): *Otras inapropiables. Feminismos desde la frontera*, Traficantes de Sueños, Madril.

HUNDLEBY, Catherine (2007): “Feminist empiricism”, NAGY HESSE-BIBER, Sharlene (ed.): *Handbook of Feminist Research: Theory and Praxis*, Sage, Londres, 28-45.

JABARDO, Mercedes (ed.) (2012): *Feminismos negros. Una antología*, Traficantes de sueños, Madril.

KUHN, Thomas S. (1962): *The Structure of Scientific Revolutions*, University of Chicago Press, Chicago.

LEE, Jane J. (2013): "6 Women Scientists Who Were Snubbed Due to Sexism", *National Geographic*, 19 de mayo, eskuragarri: <http://news.nationalgeographic.com/news/2013/13/130519-women-scientists-overlooked-dna-history-science/>

LONGINO, Helen E. (1993): "Subjects, Power, and Knowledge: Description and Prescription in Feminist Philosophies of Science", ALCOFF, Linda eta Elisabeth POTTER (arg.): *Feminist Epistemology*, Routledge, Londres, 101-120.

LUXÁN SERRANO, Marta eta Barbara BIGLIA (2011): "Pedagogía cyberfeminista: entre utopía y realidades", *Revista Teoría de la Educación: Educación y Cultura en la Sociedad de la Información*, 12(2), 149-183.

MARTÍNEZ, Luzma *et al.* (2014): "Experiencias de investigación feminista: propuestas y reflexiones metodológicas", *Athenea Digital*, 14(4), Tema especial, eskuragarri: <http://atheneadigital.net/issue/view/v14-n4>

McROBBIE, Angela (2009): *The aftermath of feminism. Gender culture and social science*, Sage, Londres.

NACIONES UNIDAS (2010): *United Nations Expert Group Meeting on Gender, Science and Technology*, eskuragarri: http://www.un.org/womenwatch/daw/egm/gst_2010/index.html

ORTÍZ, Teresa (2005): "Los estudios de las mujeres en las universidades españolas a comienzos del siglo XXI", MAQUEIRA, Virginia *et al.* (arg.): *Democracia, feminismo y universidad en el siglo XXI*, Universidad Autónoma de Madrid, Madrid, 41-62.

PANTERA ROSA (2004): "Moverse en la incertidumbre. Dudas y contradicciones de la investigación activista", MALO, Marta (ed.): *Nociones comunes. Experiencias y ensayos entre investigación y militancia*, Traficantes de Sueños, Madrid, 191-205.

PEDRERO NIETO, Mercedes (2010): "Metodología cuantitativa para reforzar estudios cualitativos", BLÁZQUEZ GRAF, Norma, Fátima FLORES PALACIOS eta Mariel RÍOS EVERARDO (arg.): *Investigación feminista. Epistemología, metodología y representaciones sociales*, UNAM, México, 239-270.

PLATERO, Raquel (Lucas) (2012): *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, Ediciones Bellaterra, Bellaterra.

PROPP, Vladimir (1971): *Morfología del cuento*, Fundamentos, Madrid.

PUIG DE LA BELLACASA, María (2002) "Flexible girls. A position paper on academic generational politics", PASSERINI, Luisa, Dawn LYON eta Liana BORGHI (arg.): *Gender studies in Europe/Studi di genere in Europa*, ATHENA, European University Institute, Università di Firenze, 91-110.

SCHIEBINGER, Londa eta Martina SCHRAUDNER (2011): "Interdisciplinary Approaches to Achieving Gendered Innovations in Science, Medicine, and Engineering", *Interdisciplinary Science Reviews*, 36(2), 154-167.

SCOTT, Joan W. (1986): "Gender: A Useful Category of Historical Analysis", *The American Historical Review*, 91(5), 1053-1075, eskuragarri: http://facultypages.morris.umn.edu/~deanej/UMM%20Home%20Page/2001/Readings/Gender/Scott_Useful%20Category.pdf

SUBRAMANIAM, Banu (2000): "Snow Brown and the Seven Detergents: A Metanarrative on Science and the Scientific Method", *Women's Studies Quarterly*, 28(1/2), 296-304.

VALLS, Carmen (2006): *Mujeres invisibles*, Debolsillo, Bartzelona.

WESTMARLAN, Nicole (2001): "The Quantitative/Qualitative Debate and Feminist Research: A Subjective View of Objectivity", *Forum: Qualitative Social Research*, 2(1), eskuragarri: <http://www.qualitative-research.net/index.php/fqs/article/view/974>

ZAVOS, Alexandra eta Barbara BIGLIA (2009): "Embodying Feminist Research: Learning from Action Research, Political Practices, Diffractions, and Collective Knowledge", *Qualitative Research in Psychology*, 6(1), 153-172.

Feminismo dekolonialetik metodologia feministak eraikitzen

Ochy Curiel

1. Sarrera

Lehenik eta behin, argitu eta problematizatu nahi nuke zer ulertzen dudan postkolonialtzat eta feminismo postkolonialtzat, horri buruzko hainbat interpretazio baitaude. Bigarrenik, feminismo dekoloniala zertan den zehaztuko dut, ongi uler dadin zergatik kokatzen naizen hor; hain zuzen ere, zerikusia du afrikar-ondorengo emakume gisa dudan esperientziarekin eta posizioarekin, “beste” modura definitua, geopolitika berezi batean eraiki diren arrazializazio- eta sexuazio-prozesuen emaitza: Abya Yala (Kuna herri indigenak Latinoamerika eta Karibe izen kolonialez ezagutzen denari emandako izena). Toki horretan eraiki ditut, halaber, nire posizionamendu politiko antiarrazista, lesbiko feminista eta autonomia feministakoa.

Aurreko definizio hori abiapuntu dudala, apustu dekolonialak biltzen d(it)uen metodologia feminista(k) problematizatzeko funtsezko jotzen ditudan zenbait alderdiri helduko diet.

2. Postkolonialismoa

Gizarte-zientzietan nahiz ekintzailtzaren esparruan, ikuspegi epistemologiko eta politiko berdintzat jotzen dira, askotan, feminismo postkoloniala eta dekoloniala deritzenak. Badituzte, ordea, garrantziko zenbait desberdintasun, argitu beharrekoak.

Jakin badakigunez, gizarte asko izan dira uneren batean kolonizatuak; hau da, gizarte askok jasan izan dute gertaera koloniala. Are gehiago: gaur egun gune inperial modura ageri diren herrialde batzuk ere –adibidez, Estatu Batuak– kolonizatuta egon dira, noizbait. Nolanahi ere, gizarte guztiak ez dira izan zentzu berean kolonizatuak, eta, hortaz, ez dira postkolonialak modu berean. Ez da gauza bera, izan ere, Estatu Batuek jasan zuten kolonizazioa eta Indiak jasandakoa, edo Latinoamerikako eta Karibeko herrialde gehienek jasandakoa.

Postkolonialismoa, hitzaren denborazko adierari erreparatzen badiogu, 1947an hasi zen, Indiak britainiar inperioarekiko independentzia lortu zuenean, Bigarren Mundu Gerra amaituta. Lotura izan du, halaber, Asiako eta Afrikako emantzipazio-prozesuekin, *Hirugarren Munduko* nazionalismoen agerpenarekin eta Gerra Hotzak definitutako eragin-eremuen baitan modu lausoan txertatzearekin, baita herrialde industrializatuertako immigranteen exodo masiboekin ere.

Postkolonialismoaren kategoria, kontzeptua eta ikuspegia –hau da, hitzaren adiera epistemologikoa– laurogeiko hamarraldian finkatu zen, Ingalaterran eta Estatu Batuetan, “teoria postkolonialen” bidez. Edward Said palestinarrik ezarri zituen teoria horien oinarriak, nolabait, *Orientalism* (1990) izenburuko bere liburuan; hain zuzen ere, Europako giza zientziak eta inperialismoa uztartzen ditu, kontuan harturik zer-nolako eraikuntza egiten duen Mendebaldeak “besteaz”, Ekialdeaz. Aurrerago, beste akademiko indiar batzuk nabarmendu ziren, esate baterako Gayatri Spivak, Homi K. Bhabha, Ranahid Guha, Chandra Mohanty eta abar.

Postkolonialismoaren kontzeptuak zenbait posizionamendu eta erabilera historiko ditu, baita anbigutasun teoriko eta politiko asko ere. Ella Shohat egile irakiar eta judu-ondorengoak (2008) anbigutasun teoriko eta politiko horietako batzuk nabarmendu ditu, eta azpimarratu du postkolonialismoaren gaineko posizio askok ez dutela argi uzten aldizkakotasuna epistemologikoa den edo historikoa den, eta, gainera, batzuek asmo unibertsalizatzaileak eta despolitizatzaileak dituztela eta erresistentzia-politika deuseztatzen dutela. Askotariko interpretazioak daudenez, Shohatek proposatzen du postkolonialismoaren ondorengoak (post-postkolonialismoak) ez diola erreferentzia egin behar ondoren datorrenari, edo kolonialismoa gainditu duenari; haren ustez, zehatzagoa litzateke lehen munduaren/hirugarren munduaren post/ondorengotasunarekin loturiko teoria batez jardutea, zeina baitoa kolonizatu/kolonizatzailea edo zentroa/perferia arteko erlazio bitar, finko eta egonkorretatik harago. Zimbabwueko Anne MacClintokek (honako honetan aipatua: Hall 2010) linealtasuna dela-eta kritikatzan du kontzeptua, kolonialismoa eta haren ondorioak amaitu balira bezala.

Arlik Dirlik turkiarrak (honako honetan aipatua: Mazzadra eta Rahola 2008), bestalde, esaten du Hirugarren Mundutik lekualdatu eta Estatu Batuetako unibertsitate ospetsuetan nabarmendu diren intelektualek darabilten diskurtso postestrukturalista eta postfundazionalista dela diskurtso postkoloniala, eta intelektual horiek asmo unibertsalekin erabiltzen dutela esamolde linguistiko eta

kulturala. Egile horren aburuz, jarrera horiek bere egiten duten identitatearen nozioa diskurtsiboa da, eta ez egiturazkoa. Beste era batera esanda, kulturalismo bat da, garrantzia kentzen diona kapitalismoak mundu modernoa egituratzeari.

Ramón Grosfoguel puertorricar egilearentzat (2010), arazo teoriko eta politiko bat dute ikasketa postkolonialak deritzenek: hain zuzen ere, kolonialismoa ulertzea XVIII. eta XIX. mendeetako gertaera baten modura, Indian britainiarrek eta Ekialde Hurbilean frantsesek edo britainiarrek izandako esperientziatik. Grosfoguel eta Latinoamerikako beste pentsalari batzuen aburuz, esperientzia koloniala 1492an hasi zen, hau da, 300 urte lehenago, eta funtsezko abiapuntua da, handik abiatuta zehaztu baita Mendebaldeak gainerako mundu osoaren gain duen nagusitasun epistemikoa eta politikoa eraiki duen modernitatearen eta kolonialitatearen arteko erlazioa. Egile horren arabera, ikasketa postkolonialek ezkutatu egiten dituzte esperientzia horiek (gero helduko diot gai horri, berriro).

Stuart Hall afrojamaikarrak (2010) bere egin zituen Shohat, MacClintok eta Dirlikén kritika batzuk, baina adierazi zuen postkolonialismoak kontzeptu gisa lagundu edo ezaugarritu egin dezakeela inperioen garaitik postindependentziaren edo postkolonizazioaren unerako trantsizioa (berdintasunik gabea, ezinbestean) markatzen duen erlazio orokorren aldaketa, baita abagune berrian sortzen ari diren botere-erlazio eta botere-ordena berriak zein diren identifikatu ere.

Hallen aburuz, kolonialismoak markatutako mundu guztiak sindrome kolonialetik deslotzeko prozesu bat da postkolonialismoa. Ildo horretatik, ez datza soilik gizarte *hau* deskribatzean *hura* deskribatu ordez, edo *ordukoa* eta *oraingoa* deskribatzean; baizik eta kolonizazioa berrinterpretatzean, prozesu global transnazional eta transkultural baten parte gisa harturik, eta, hortik abiatuta, lehen nazioan oinarritzen ziren kontakizun inperial handien berridazketa deszentratua, diasporikoa edo globala egitean. Alderdi horretatik, modernitatearen bestelako kontakizun batzuk dakartza postkolonialismoak. Eta, hain zuzen ere, hori da feminismoarekin uztartu nahi dudana alderdia, Mendebaldeko modernitatearen emaitza izan baitira feminismoaren baitako joera hegemonikoak.

Feminismo postkolonialtzat ulertzen denak ere zenbait adiera ditu, hala nola: feminismo hegemonikoaren aurrez aurre bestelako kontakizun bat eta jardunbide politiko batzuk proposatzen dituen, haren jite zuri, mendebaldar eta burgesa dela-eta; *Hirugarren Munduko* emakumeek sustatutako feminismotzat definitzen duena; zapalkuntzen interseksionalitateari erreferentzia egiten diona; *feminismoaren hirugarren alde* modura definitzen dena, feminismoaren ikuspegi lineal, bakar eta eurozentrikotik; edo aurreko guztiak batera edo aurreko guztietatik bakar bat ere ez. Neronek ere (Curiel 2007) baliatu nuen *feminismo postkoloniala* kontzeptua teoria feminista askoren jarrera hegemoniko zuri, burges eta heterosexualak kritikatzeko, kontzeptua zehatz ezaugarritu gabe.

Jarrera feminista jakin batzuk postkolonialtzat hartu izana garrantzizkoa izan da feminismo hegemonikoaren kritika enuntziatzeko; baina ez du bide eman jarrera horien testuinguruetan sakontzeko, eta, batez ere, jarrera horien jatorrian dagoen epistemean sakontzeko. Itxuraz, irudi lezake jarrera feminista postkoloniala adierazten duela interseksionalitatearen ikuspegia txertatzeak, feminista indiar, beltz, txinatar edo indigena batzuk aipatzeak.

Gutako batzuentzat, hori ez da aski ordea. Ezinbestekoa da “historia” berrirakurtzea, historiak berrirakurtzea, kolonialismoak urratutako testuinguruetan kokatzea, zapalkuntzen ulkerak konplexu bat lantzea, zapalkuntzak kolonialitate garaikideari atxikitako osagaitzat harturik, eta, hortik abiatuta egitea gure teorizazioak eta bideratzea gure jardunbide politikoak.

3. Feminismo dekolonialari buruz

Nire gain hartzen dut, beste askok bezala, Abya Yalan deskolonizazio-prozesuak gertatu direla herri indigenek eta beltzek gertaera kolonialetik libratzeko egin zituzten borrokez geroztik, eta garrantzi handiko epistemologiak ere eratorri direla handik, sakonago aztertu beharko direnak; horixe da abiapuntua.

Feminismo dekoloniala deritzonak –kontzeptu hori María Lugones argentinar feministak proposatu zuen (2008)– oinarritzko bi iturri ditu. Alde batetik, *Black Feminism* delakoak edo emakume beltzek, chicanoek, herritarrek, Latinoamerikako autonomia feministak, feminista indigenek eta feminismo materialista frantsesak feminismo hegemonikoari egindako kritika feministak, emakumearen kontzeptua unibertsalizatu eta jite kutsu arrazista, klasista eta heterozentratua eman izanagatik (Espinosa 2013); eta, bestetik, Latinoamerikako eta Karibeko pentsalariak garatutako Teoria Dekoloniala edo proiektu dekoloniala deritzonaren proposamenak. Jarraian, bada, bi puntu horiek garatuko ditut, bigarrenetik hasita, analisi-esparru orokorragoa eskaintzen baitu eta aukera ematen baitit feminista dekolonialek Latinoamerikako eta Karibeko egile antikolonialei egindako kritika batzuk txertatzeko.

Proiektu dekolonialaren edo “modernitate/kolonialitatea taldea” deritzonaren aitzindariak Latinoamerikako intelektual eta ekintzaileak izan dira. Gehienek Estatu Batuetako¹ eta Latinoamerikako² unibertsitateetan dihardute; haietako batzuek lotura dute Boliviako edo Ekuadorko mugimendu indigenekin, beste batzuek Kolonbiako afrikar-ondorengoen mugimenduarekin, eta badira Munduko Gizarte Foroaren baitan ekintzak antolatzen diharduten batzuk ere. Talde hori teoria garaikide kritikoaren adierazpen bat da, Latinoamerikako eta Karibeko gizarte zientzien eta humanitateen tradizioekin estu lotua (Castro-Gómez eta Grosfoguel 2007).

Feminismo dekolonialak funtsezko zenbait puntu hartu ditu proiektu dekolonialetik. Lehenik eta behin, *dekolonialitatea* kontzeptua bera. Kontzeptu hori azaltzeko abiapuntua hauxe da: kolonialismoa –modernitate europar mendebaldarraren eraikuntza geo-politiko eta geo-historiko gisa– amaitu arren, ez dela eraldaketa adierazgarri gertatu zentroen eta periferiaren nazioarteko lan-banaketan, ezta herrien arteko hierarkizazio etniko-arrazialean eta periferian estatu-nazioak sortzean ere; aitzitik, kolonialismo modernotik kolonialitate globalerako trantsizioa gertatu da, kapital globalaren erakunde eskutik –hala nola Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Munduko Bankua (MB)–, eta NATOren moduko erakunde militarren eskutik, inteligentzia sareen eta Pentagonoaren eskutik, eta, nik erantsiko nuke, Iparreko nazioarteko lankidetzaren eskutik. Hau da, menderakuntza-moldeak eraldatu dira, eta ez zentroaren eta periferiaren arteko erlazio-egiturak. Horretan oinarriturik, Ramón Grosfoguelek (2010) proposatzen du *sistema-mundu europar/euro-iparramerikar kapitalista/patriarkal moderno/kolonial* –eta, gehituko nuke, *heterosexual*– bat dugula aurrez aurre.

1 Adibidez, New Yorkeko Estatuko Unibertsitatea (SUNY) edo Dukeko Unibertsitatea.

2 Besteak beste, Universidad Andina Simón Bolívar unibertsitateko Kultura Ikasketen Doktoregoa, Quito; Universidad Javeriana unibertsitateko Kultura Ikasketen Maisutza, Bogotan; IESCoko Gizarte Arazo Garaikideei buruzko Ikerketako Maisutza, Bogotan hori ere; “Fábrica de Ideas” Mintegi Tailerra, Salvador de Bahian (Brasil); eta Venezuelako Universidad Central unibertsitatea.

Dekolonialitateak harreman globalen eta lokalen beste ikuskera bat eskatzen du, eta horrek funtsean esan nahi du, Enrique Dusselek planteatzen duen moduan (1999), ulertzea trilogia bereizezin bat osatzen dutela Mendebaldeko modernitate eurozentrikoak, munduko kapitalismoak eta kolonialismoak. Amerika modernitatearen produktu bat da sistema-munduaren eraikuntzan, eta Europak, bera munduaren zentro gisa eraikitze, bere periferia gisa eraiki zuen hura, 1492an, kolonialismoaren bidez kapitalismoa mundu osora hedatu zenean. Ikuspegi eurozentriko horretatik, Mendebaldeko modernitatea emantzipazio modura hartzen da, utopia modura, europarren nagusitasuna definitu zuen mito modura, europarrek hartu zituztelarik besteak barbarotzat, heldugabetzat, garatu beharrekotzat –gerraren eta biolentziaren bidez, hala behar izanez gero– eta bere biktimizazioaren erruduntzat (Dussel 2003).

Modernitatea-kolonialismoa-kapitalismoa arteko erlazio horretatik mundu mailako botere eredu bat sortzen da horrela, Anibal Quijano perutarrek (2000) *boterearen kolonialitate* gisa definitu zuena. Eta, hain zuzen ere, feminismo dekolonialak bere egin duen beste kontzeptu garrantzizkoetako bat da hori. Boterearen kolonialitateak esplotazioa/menderakuntza/gatazka ekarri ditu gizarte-erlazioetara, kontrolatu eta menderatu nahi izan baitira lana eta haren emaitzak, natura eta haren ekoizpen-baliabideak, sexua eta haren emaitzak, espeziearen iraupena eta subjektibitatea eta haren emaitza material eta intersubjektiboak, barne direla ezagutza eta autoritatea, hertsapen tresna gisa.

Quijanoren iritzian (*Ibidem*), mundu-eredu horrek arrazaren ideian zuen oinarria, eta sailkapen arrazial/etniko bat ezarri zuen horrenbestez: indiarrak, azeituna kolorekoak, horiak, zuriak mestizoak; baita sailkapen geokultural bat ere: Amerika, Afrika, Ekialde Urruna, Ekialde Hurbila, Asia, Mendebaldea eta Europa. María Lugonesek (2008) bere egiten du Quijanok kolonialitateari buruz egindako proposamenaren parte bat, baina, bere ustez, boterearen kolonialitatea taxutzeko elementu erabakigarri bakarra ez da izan arraza, eta gertaera horretan funtsezkoak izan dira generoa eta, horri loturik, heterosexualismoa.

Bestalde, Lugonesek (*Ibidem*) adierazi du Quijanok sexuaren ikuspegi hiperbiologizatua duela. Haren azterketaren arabera, Quijanok darabilen generoaren ikuspegiak mota bakarreko giza erlazio bati erreferentzia egiten dio: gizon europar zuri eskubidedunari eta hark espezie gisa ugaltzeko behar duen emakumezko kideari soilik dagokien giza erlazioari, hain zuzen.

Feminista dekolonial horren aburuz, herri kolonizatu eta esklabizatuak aplikatzen zaien bereizgarria *dimorfismo sexuala* da, arra eta emea, ugalketa-ahalmena eta giza sexualitatea adierazten duena. Eta, ildo horretatik, dio eme esklabizatuak ez zirela emakumeak. Beste era batera esanda, zera planteatzen du Lugonesek: generoa kategoria modernoa eta koloniala dela.

Horrek lotura du modernitate mendebaldarrak gizadiari buruz finkatutako ideiarekin, zeinaren abiapuntua izan baitzen indiarrak eta, gerora, beltzak gizakiak ote ziren eztabaida. Eme eta ar kolonizatuak ez ziren ez emakume eta ez gizon, ezta gizakitzat hartuak ere. Alderdi horri dagokionez, Nelson Maldonado Torres puertoricarrak (2007) *izatearen kolonialitatea* kontzeptua proposatzen du gure gizatasunaren ukoa adierazteko; kristautzearen oztopo, lehenik, eta, ondoren, modernizatzearen oztopo hartu izan diren herrien gutxiagotzea adierazteko (bereziki herri indigena eta afrikar-ondorengoena). Izatearen uko hori erabili da (Dasein) justifikazio gisa herri horiek esklabizatzeko, haiei lurak kentzeko, gerra egiteko edo, besterik gabe, haiek deuseztatze. Lurreko kondenatuak dira, Frantz Fanonek (1963) esango lukeen moduan.

Modernitate mendebaldar eurozentrikoak sortu zuen, halaber, *jakintzaren kolonialitate* (Lander 2000), arrazionalitate tekniko-zientzifiko, epistemologiko jakin bat, ezagutza ekoizteko baliozko

eredutzat hartzen dena. Ikuspegi horretatik, jakintzak neutroa, objektiboa, unibertsala eta positiboa behar du izan. Santiago Castro-Gómez kolonbiarrak dioenez (2007), izaera eta kultura exotiko baten ezaugarriak fideltasunez itzultzea eta dokumentatzea ahalbidetuko duen behaketarako zero-gune batean egotea du xedea. Plataforma neutro batetik ikusi nahi den iruditeria bat da, inongo beste puntutatik behatu ezin zaión mundu sozialari behatzeko puntu bakar bat, jainkoek egingo luketen moduan. Hortik aurrera, narratiba unibertsal handi bat sortzen da, zeinetan baitira Europa eta Estatu Batuak, aldi berean, erdigune geografikoa eta jakintzaren mugimendu tenporalaren gorenko gunea, zeinetan gutxiesten, baztertzen, isiltzen eta ezkututzen baitira eskumendeko herrien ezagutzak. Eskumendekotasunak “bestea” adierazten du hemen, ez dena gizona, heterosexuala, aita, katolikoa, letraduna, arraza eta klase pribilegiaduna eta, orain, halaber, baita pribilegio horiek badituzten emakume asko ere. Bestetasun hori da aztertu, ikertu, exotizatu, esplotatu, garatu, kontrolatu beharrekoa, oro har gure ikerketa eta praktiketan gaur egun egiten dugun moduan.

Boterearen, izatearen eta jakintzaren kolonialitatea, beraz, modernitatearen alde iluna da, Mendebaldeko modernitate horrena, zeinetatik sorten baita, halaber, feminismoa, emakume guztientzako askapenerako proposamen modura. Baina ez gara ohartu askapena ez dela izan emakume guztientzat. Eta, bide horretatik, feminismo dekolonialaren beste iturria aztertuko dut jarraian, feminismo kritiko eta kontrahegemonikoekin zerikusia duena, hain zuzen.

Azkenaldian egindako lan batean, Yuderlys Espinosa afrodominikar, lesbiana feminista autonomo eta dekoloniala Latinoamerikan eta Karibbean feminismo dekoloniala deritzogun hori sistematizatzen hasi da. Espinosak dioenez *“hazkunde- eta heltze-prozesu bete-betean den mugimendu bat da, feminismoaren teoriaren eta proposamen politikoaren errebisionistatzat aitortzen dena, kontuan hartzen baitu haren jite mendebaldar, zuri eta burgesa”* (Espinosa 2013: 8). Egile horrentzat, feminismo dekolonialak feminismoaren funtsezko oinarriak berrikustea eta problemaritzatzea du xede, baita arestian aipatutako pentsalari latinoamerikar askok proposatutako teoria dekoloniala deritzonaren kontzeptu eta teoria giltzarriak zabaltzea ere. Espinosaren hitzetan:

“Alde batetik, bere burua aldarrikatzen du Estatu Batuetako feminismo beltz eta Hirugarren Mundukoaren oinordeko, zapalkuntzen arteko (klase, arraza, genero, sexualitate zapalkuntzak) teilakatzea pentsatzeko ekarpenei dagokienez, eta aldi berean du Latinoamerikatik eta Karibetik beren mugimenduetan eta feminismoan bertan ezartzen zaien ikusezintasunaren arazoa planteatu duten emakume eta feminista afrikar-ondorengo eta indigenen ondare kritikoa bere egiteko asmoa, hasiera emanez beren komunitateak gauzatzen eta haien erresistentzian izan duten eginkizun garrantzizkoa berraztertze lanari. Bigarrenik, bere egiten ditu Europan eta AEBn sortutako teoria feministaren zenbait ekarpen, bere helburuentzat baliagarriak. Hala, taldea osatzen duten zenbaitek feminismo materialista frantsesa berreskuratu dute, hasi baitzen zalantzan jartzen izatearen ideia, ulertu baitzuen emakumeen kategoria “sexu-klase” gisa, eta aztertu baitzuen heterosexualitatea erregimen politiko gisa. Orobat elikatzen dira feminismo postmodernistak garatutako esentzialismoaren berrikuspen kritikoaren, subjektuaren feminismoaren eta identitatearen politikaren berrikuspen kritikotik. Ildo horri berari jarraituz, bere egin dute feminismo postkolonialaren baitako egile nagusien ondarea: biolentzia epistemikoaren kritika, esentzialismo estrategikoaren aukera, iparra-hegoa solidaritate feministarako deia eta lparrean finkatutako akademia feministaren ezagutzen ekoizpenari buruzko kolonialismoaren kritika. Hirugarren ildo genealogiko modura, feminismo honek Latinoamerikako joera feminista autonomoaren kritikak bere egiten ditu; hain zuzen ere, talde horretako kide izan dira feminista dekolonial batzuk, eta salatu dute ‘Hirugarren Mundu’ deritzonako herrialdeetan politika desarrollistak sartzea dakarten mendekotasun ideologiko eta ekonomikoa,

baita gizarte-mugimenduak instituzionalizatzeko eta teknokratizatzeko prozesua ere, Iparretik abiatutako nazioarteko lankidetzaren logikekin lotura duten interes neokolonialen zerbitzurako eskubideen agenda global batek ezarria” (Ibidem).

Jarrera dekolonialak adierazten du feminismoaren funtsezko kategoriak –hala nola, generoa, emakumeak, esku-hartze soziala, garapenerako nazioarteko lankidetzak, talde gutxiak, pobreak eta kolonialitatea islatzen duten beste zenbait kontzeptu eta kategoria– Lugonesek (2008) *genero sistema/moderno/kolonial* izendatu zuen eta gure interpretazio, teorizazio, ikerketa, metodologia, jardunbide politikoetan eragin duen horren parte direla.

Jarraian, gure burua dekolonial izendatzen dugun feministen proposamen batzuei helduko diet, garrantzizkoak iruditzen zaizkidanak, metodologia feminista (?) deritzonari ekarpena egiten dioten eta problematizatzen duten heinean.

3.1. Metodologia feminista? Interseksionalitatearen ikuspegia

Aintzat hartzen ditugu Sandra Hardingek (1992) zientziaren logika maskulinoa zalantzan jarriko duen epistemologia eta metodologia feminista bat pentsatzeari buruz egindako ekarpenak, ikerketan diharduten pertsonen sinesmen eta jardunbide kulturalak ezkutatzeko xedea duen posizio *objektibista* saihestearren erreflexibitatearen inguruko ekarpenak eta ikertzailean generoa, arraza, klasea eta ezaugarri kulturalak posizionamendu modura adierazteko egiten duen gonbita. Nolanahi ere, haren proposamenak erreproduzitu egin zuen, azken batean, generoaren unibertsalizazioa eta bitarikotasuna. Proposamen nahiko esentzialista egin zuen, beraz, proposatu baitzuen *metodologia feminista* esperientzia femeninoen ikuspegiari dagokiola. Gainera, dualismoa sustatzen du, *emakumeen esperientziak* kontrajartzen baitizkie *gizonen esperientziari* (Haraway 1991), gizonak ere guztiak berdinak balira bezala.

Donna Haraway ere ezaguna da erreflexibitateari eta ikuspegiari buruz egin dituen ekarpenengatik. Ekarpene horien bidez, gonbit egiten du ikerketak egiten dituen historiatzeko, hau da, agerian uzteko egiten diren ikerketen interpretazioan goitik beherako eragina duen enuntziatio-gune bat. Garrantzi handia du horrek; are gehiago: oinarritzko abiapuntu etiko bat da. Hala ere, erreflexibitatea, ikuspegi dekolonialetik, ez da mugatzen gure burua ezagutzaren ekoizpenean definitzera. Jarrera horretatik, ikuspuntuak eta erreflexibitateak esan nahi dute ezagutzaren eraikuntzan jarrera jakin bat hartzea, kontuan hartuko dituen geopolitika, *arrazak*, klasea, sexualitatea eta kapital soziala, beste posizionamendu batzuek gainera.

Ikuspuntuan gehien sakondu duen egilea Patricia Hill Collins afroamerrikarra da (1998), nire ustez, pentsamendu feminista beltzaren berreraikuntzatik abiatuta. Hill Collinsentzat, bi osagai ditu ikuspuntuak. Lehenik, *esperientzia politiko-ekonomikoak*, zeinetatik eratortzen den askotariko esperientzia multzo bat eta afroamerikarrek bizi duten errealitate materialari buruzko bestelako ikuspegi bat; bigarrenik, *errealitate materialari buruzko kontzientzia feminista beltza*. Horrek berarekin dakar ulertzea nola eratzen den kontzientzia hori errealitate jakin baten esperientziatik, eta, beraz, nola diren afroamerikarrek errealitate hori hobekien interpreta dezaketenak. Esperientzia hori nahiz esperientziaren kontzientzia, era berean, Hill Collinsek *menderakuntza-matrize* deritzonaren inguruan esperimendatzeko, problematizatzeko eta jarduteko moduaren eraginpean daude. Matrize horrek esan nahi du ulertzea nola elkarreragiten duten arrazismoak, heterosexualitateak eta klasismoak; eta lau ezaugarri hauek biltzen ditu: *egiturazko elementuak*, *hala nola* legeak eta politika instituzionalak; *diziplinazko alderdiak*, *esaterako*, hierarkia burokratikoak eta zaintza-teknikak; *elementu hegemonikoak edo ideiak eta ideologiak*; eta *pertsonarteko alderdiak*, eguneroko bizitzako esperientziako diskriminazio-jardunbide ohikoak.

Hill Collinsen analisisiek bi gauza iradokitzen dizkigute:

- a. Kontzientzia feminista beltza esperientziatik sortua bada, haiek badira beren errealitateetik abiatuta esperientzia hori hobekien interpreta dezaketenak, bizitako esperientzia ezagutzaiturri delako eta esperientzia hori haiek ikertu beharko luketelako da.
- b. Errealitate hori interpretatzeak esan nahi badu ulertzea nola diharduen menderakuntza-matrizeek beren bizitzan, menderakuntza-matrize modura hartuta arrazakeria, heterosexualitate, kolonialismo eta klasismoaren moduko zapalkuntzen eragina, horien adierazpen egiturazko, ideologiko eta pertsonarteko alderdiak atxikita dituztela, orduan, horiek guztia ez dira kategoria analitikoak, baizik eta bizitako errealitateak (Lugones, 2008), eta horiek nola gertatu ziren sakon ulertzea eskatzen dute. Kontua ez da deskribatzea beltzak direla, pobreak direla eta emakumeak direla: beltzak, pobreak eta emakumeak zergatik diren ulertzea, baizik.

Horrekin ez dut esan nahi zapalkuntza jasan duenak baino ez duenik zapalkuntzak ulertzeko eta ikertzeko gaitasuna; esan nahi dudana da badagoela *pribilegio epistemiko* garrantzitsu bat (Hill Collins 1998), ezagutzaren ekoizpenean kontuan hartu beharrekoa, eta objektu izatetik subjektu izaterako jauzia egitea esan nahi du horrek.

Ez da gauza bera Hill Collinsen menderakuntza-matrizea aintzat hartzea edo, María Lugonesek esango lukeen moduan, zapalkuntzen berezkotasuna onartzea eta interseksionalitatea ikuspegi modura gure gain hartzea –Kimberlé Crenshawek proposatutako kontzeptua (1993)–. Interseksionalitatearen kontzeptuak izan du zapalkuntzak ulertzeko ikerketa eta proposamen feministen artean arrakasta gehien, eta ez da halabeharra; izan ere, azken batean, proposamen liberal eta moderno da, afroamerikar batek proposatua izan arren.

Interseksionalitateak elkar ebakitzen duten kategorietatik abiatzen den diferentzia koloniala aitortzera garamatza, zeinetan diren arraza eta generoa, adibidez, noizbait bereizita egon diren, noizbait nolabaiteko autonomia izan duten menderakuntza-ardatzak, uneren batean elkartu direnak. Elkar gurutzatzen duten autobideen metafora, egileak erabiltzen duena, proposamen horrek bere baitan biltzen duen problema politiko eta teorikoaren erakusgarria da. Interseksionalitateak oso gutxi galdetzen du emakume askoren –bereziki emakume arrazializatu eta pobreen– esperientzietan bildutako diferentzia horien ekoizpenaz. Horregatik jotzen du kulturantzitasun liberal batera, zeinak aitortu nahi baititu diferentziak, horiek eredu dibertso batean txertatuz, baina kolokan jarri gabe txertatze horren premia dakarten arrazoiak. Beste era batera esanda, paradigma moderno mendebaldar eurozentrikotik definitzen da.

Posizio dekolonial feministak berarekin dakar arraza nahiz generoa episteme moderno kolonialaren osagai izan direla ulertzea; ez dira diferentzia-ardatz hutsak, kolonialismoak berak sortu zituen eta kolonialitate garaikidean sortzen jarraitzen duen zapalkuntzen ondoriozko bereizketak baizik.

Aurreko guztian oinarrituta, metodologia feminista dekolonialak zenbait galdera egin beharko lizkioke bere buruari: zer esanahi dute ikuspuntuak ikerketa feministetan? Zenbatek ezartzen dugu generoa ikerketa-prozesuetan eta prozesu epistemologikoetan, emakume arrazializatuak ikergai ditugunean, bereziki beltzak eta indigenak? Zenbatek erreproduzitzen dugu boterearen, jakintzaren eta izatearen kolonialitatea, arraza, klasea, sexualitatea kategoria analitiko edo deskribatzaile huts bihurtzen zaizkigularik eta aukerarik ematen ez digutelarik errealitate horien eta munduko ordena kapitalista-moderno-kolonialaren arteko gaur egungo erlazioa zehazteko?

3.2. Subjektua-objektua erlazioa

Metodologia feministetan, nor dira gure ikerketen subjektuak eta nor objektuak? Adierazi dugunez, ezagutzaren kolonialitatearen ezaugarrietako bat da bestetasuna eta diferentzia koloniala onartzea, oro har, ikerketen objektutzat: emakumeak, beltzak, pobreak, indigenak, migratzaileak, Hirugarren Mundukoak. Horiek lehengai modura hartze hutsarekin ikerketa feminista egingo balitz bezala. Eztabaidaezina dirudi *besteen* gain ezagutza eraikitzen dutenen pribilegioen tokiak.

Zer esan nahi du Iparreko emakume zuriak Hirugarren Munduko emakumeak aztertzeak? Zer inplikazio ditu haien errealtateak ulertzeko garaian kategoria eurozentrikoak erabiltzeak? Zenbatek erreproduzitzen dugu boterearen, jakintzaren eta izatearen kolonialitatea proposamen metodologikoetatik?

Ikerketak garrantzizkoak direla ulertzetik harago, *kolonizazio diskurtsiboa* (Mohanty 2008) eta *biolentzia epistemikoa* (Spivak 2009) da oro har egiten dena, ikertzaile batek bere jardunbide sozial eta kulturalaz egiten duen interpretazioaren bidez, eta, nolabait, bultzatuz askotan kreditu akademiko hutsak besterik ez sortzea posizio hegemonikoetatik *bestelako* jotzen diren beste horiek ikasiz.

Horretan oinarrituta proposatu dut (Curiel 2013: 28) *menderakuntzaren antropologia* izendatu nuena, zeinak esan nahi baitu agerian uztea zer modu, molde, estrategia, diskurtsoren arabera definitzen diren talde sozial batzuk “bestelakotzat”, botere eta nagusitasun guneetatik. Nire ustez, ikuspegi dekolonialetik, menderakuntzaren antropologia landu beharra dago, hegemoniaren antropologia, modernitatearekin egin den bezala (Escobar 1996), baita feminismo horretan zeinetan gaur egun hegemonikoki baitirauen jakintzaren kolonialitateak, genealogiaren sorkuntzan, teorian eta garatzen dituen metodo eta metodologietan.

Menderakuntzaren antropologia egiteak esan nahi du Iparraren etnografia eta Hegoan dagoen Iparraren etnografia bat egitea; beren baitan garapenaren ideia, pribilegioetan oinarrituriko solidaritate transnazionalaren ideia biltzen duten gure jardunbide akademikoaren, metodologikoen eta pedagogikoen etnografia egitea; esan nahi du norbera txertatuta dagoen nazioarteko lankidetzaren logiken etnografia egitea, egiten dugun esku-hartze sozialaren logikarena, ezagutzen ekoizpenerako gure guneena, erabiltzen eta zilegitzen ditugun logikena eta haien bidez bete nahi diren xedeena. Beste era batera esanda, pribilegioak ekoizteko gure toki eta posizioen etnografia egin behar dugu.

3.3. Deslotze epistemologikoa

Proposamen dekolonialak proposatzen du modernitatearen, aurrerabidearen eta kudeaketa demokratiko *inperialaren* erretorika justifikatzen duen boterearen, jakintzaren eta izatearen uztarketa haustea. Loturak hauste horrek honako inplikazio hauek ditu ekoizten diren ezagutzei, ezagutzak ekoizteko moduari eta ezagutzen ekoizpenaren zertarakoari dagokienez:

a) *Eskumendekotutako jakintza “besteen” aitortza eta zilegitzea*

Aitortza horrek ezin du izan erru epistemologikoak garbitzeko elementu soil bat; kontua ez da feminista beltz, indigena, pobretuak aipatzea ikerketei eta eraikitzen diren ezagutza eta pentsamenduei ukitu kritikoa emateko. Kontua da eskumendeko esperientzietatik sorturiko kontzeptu, kategoria eta teoriak identifikatzea; esperientzia horiek modu kolektiboan sortu ohi

dira, orokortzeko aukera dute, unibertsalizatu gabe, eta errealitate asko azal ditzakete, ezagutza horiek lokalak, banakakoak, komunikatzeko aukerarik gabekoak direla adierazi nahi duen iruditeria hausteko.

Hori bat dator Zulma Palermok (2010) genealogia propioko etika askatzaile gisa definitu duenarekin, zeinak baitakar Mendebaldeko epistemologiak sortu eta ezarritako kategorietatik kanpo kokatzea eta haustea subjektu ezagueradunaren eta subjektu ezagugaien arteko diferentzia epistemiko koloniala, subjektu eskumendekotuen bazterketa eta jakintzaren ikusezintasuna eragin duena

Deslotze horrek prozesu pedagogiko "bestiak" dakartza, halaber. Yuderlys Espinosa, Diana Gómez, Karina Ochoa eta María Lugonesen ikuspegitik, zera esan nahi du horrek: *"egitearen eta pentsatzearen arteko erlazioa, eta itzulerako bidea, zeina baita bide bera: egitetik pentsatzea. Horrela, ezagutzaren esperientzia bat gauzatzen da eginez ezagutzekoa, teoria eta praxia uztatzen dituen ezagutza bat sortzekoa"* (Espinosa et al. 2013: 409). Egile horiek baterako ikerketa eta teorizazio bat proposatzen dute, komunitate eta organizazioetako intelektual organikoek gauzatua, borroka-, erresistentzia- eta ekintza-prozesuekin konprometitutako ekintzaileek gauzatua (*Ibidem*: 411). Hala, deslotzeak atxikita darama sormena, ezagutzaren eraikuntzan botere-erlazioen eragina arintzera jotzen duten metodologietan.

b) Ezagutzak sortzeko baldintzak problematizatzea

Ezagutzak sortzeko baldintzak problematizatzeak Silvia Rivera Cusicanqui boliviarrak (2010) *ezagutzaren ekonomia* deritzona dakar. Egile horrek zalantzan jartzen du Hegoko antikolonial askok proposatutako ezagutzaren geopolitika, Hegoko intelektualitatearen parte handi baten iruditeria eta adimenaren birkolonizazioa baitu oinarri. Bere proposamenarekin, Rivera Cusicanquik azpimarratzen du beharrezkoa dela diskurtso antikolonialen atzean diharduten superegituren eta mekanismo materialen esparrutik (soldata altuak, erosotasunak, pribilegioak eta argitaratzeko aukerak) irteera, praktikan bertan benetako deskolonizazioa egiteko.

Eta feminismora ere aplikatu daitezke hori. Zer erakunde esparrutan ari dira metodologia feminista kritikoak sortzen? Materialaren, kapital sozialaren, arrazaren, sexualitatearen eta klasearen esparruetako zer pribilegiotatik? Apustu dekoloniala gauzatzeko, funtsezkoa da ezagutza ekoizteko baldintzak aztertzea, eta azterketa hori hartu behar da ardatz, ezagutzaren, boterearen eta izatearen kolonialitatea aztertzeke eta hura ezabatzeke bideak bilatzeko.

Bibliografía

CASTRO-GÓMEZ, Santiago (2007): “Decolonizar la universidad. La *hybris* del punto cero y el diálogo de saberes”, CASTRO-GÓMEZ, Santiago eta Ramón GROSFOGUEL (arg.): *El giro decolonial. Reflexiones para una diversidad epistémica más allá del capitalismo global*, Siglo del Hombre Editores, Bogotá, 79-92.

– eta Ramón GROSFOGUEL (2007): “Giro decolonial, teoría crítica y pensamiento heterárquico”, CASTRO-GÓMEZ, Santiago eta Ramón GROSFOGUEL (arg.): *El giro decolonial. Reflexiones para una diversidad epistémica más allá del capitalismo global*, Siglo del Hombre Editores, Bogotá, 9-24.

CRENSHAW, Kimberlé (1993): “Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory, and Antiracist Politics”, en WEISBERG Kelley (arg.): *Feminist Legal Theory. Foundations*, Temple University Press, Philadelphia, 139-155.

CURIEL, Ochy (2007): “La crítica postcolonial desde las prácticas políticas del feminismo antirracista”, *Nómadas*, 26, 92-101.

– (2013): *La nación heterosexual. Análisis del discurso jurídico y el régimen heterosexual desde la antropología de la dominación*, Brecha lesbica y en la Frontera, Bogotá.

DUSSEL, Enrique (1999): “Más allá del eurocentrismo: el sistema-mundo y los límites de la modernidad”, CASTRO-GÓMEZ, Santiago *et al.* (arg.): *Pensar (en) los intersticios. Teoría y práctica de la crítica poscolonial*, Instituto de Estudios Pensar, Universidad Javeriana, Bogotá, 147-162.

– (2003): “Europa, modernidad y eurocentrismo”, LANDER, Edgardo (bil.): *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales. Perspectivas latinoamericanas*, CLACSO/ UNESCO, Buenos Aires, 41-53.

ESCOBAR, Arturo (1996): *La invención del Tercer Mundo: construcción y deconstrucción del desarrollo*, Norma, Bogotá.

ESPINOSA, Yuderlys (2013): “Una crítica descolonial a la epistemología feminista crítica”, ponencia presentada en *Os desafios da arte, a educação, a tecnologia e a criatividade del Fazendo Genero*, Brasilia, 10 de noviembre, eskuragarri: <http://www.elcotidianoenlinea.com.mx/pdf/18402.pdf>

ESPINOSA, Yuderlys *et al.* (2013): “Reflexiones pedagógicas en torno al feminismo descolonial. Una conversa en cuatro voces”, en WALSH, Catherine (ed.): *Pedagogías decoloniales. Prácticas insurgentes de resistir, (re)existir y (re)vivir*, Ediciones Abya Yala, Quito, 403-442.

FANON, Frantz (1963): *Los condenados de la tierra*, Fondo de Cultura Económica, México (1. argitalpena frantsesez, 1961ean).

GROSGOQUEL, Ramón (2010): *La descolonización de la economía política*, Universidad Libre Bogotá, Bogotá.

HALL, Stuart (2010): *Sin garantías. Trayectorias y problemáticas en estudios culturales*, Envion Editores, Popayán (Colombia).

HARAWAY, Donna (1995): *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*, Feminismos, Madrid.

HARDING, Sandra (1992): *Whose Science? Whose Knowledge? Thinking from Women's Lives*, Cornell University Press, Nueva York.

HILL COLLINS, Patricia (1998): "La política del pensamiento feminista negro", NAVARRO, Maryssa eta Catherine STIMPSON (comps.): *¿Qué son los estudios de Mujeres?*, Fondo de Cultura Económica, México, 253-312.

LANDER, Edgardo (bil.) (2000): *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales. Perspectivas latinoamericanas*, CLACSO/UNESCO, Buenos Aires eta Caracas.

LUGONES, María (2008): "Colonialidad y género: Hacia un feminismo descolonial", MIGNOLO, Walter (bil.): *Género y Descolonialidad*, Ediciones del Signo Buenos Aires, 13-25.

MALDONADO-TORRES, Nelson (2007): "Sobre la colonialidad del ser: contribuciones al desarrollo de un concepto", CASTRO-GÓMEZ, Santiago eta Ramón GROSGOQUEL (arg.): *El giro decolonial. Reflexiones para una diversidad epistémica más allá del capitalismo global*, Siglo del Hombre Editores, Bogotá, 127-168.

MEZZADRA, Sandro eta Federico RAHOLA (2008): "La condición postcolonial", en MEZZADRA, Sandro (koord.): *Estudios Postcoloniales. Ensayos fundamentales*, Traficantes de Sueños, Madrid, 261-278.

MOHANTY, Chandra (2008): "Bajo los ojos de occidente. Academia feminista y discursos coloniales", SUÁREZ, Liliana eta Rosalva Aida HERNÁNDEZ (arg.): *Descolonizando el feminismo: teorías y prácticas desde los márgenes*, Cátedra, Madrid, 112-161.

PALERMO, Zulma (2010): "La opción decolonial", en CECIES. Pensamiento Latinoamericano y Alternativo, eskuragarri: <http://www.cecies.org/articulo.asp?id=227>

QUIJANO, Aníbal (2000): "Colonialidad del poder: eurocentrismo y América Latina", LANDER, Edgardo (bil.): *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales. Perspectivas latinoamericanas*, CLACSO/UNESCO, Buenos Aires eta Caracas, 1-14.

RIVERA CUSICANQUI, Silvia (2010): *Ch'ixinakax utxiwa. Una reflexión sobre prácticas y discursos descoloniales*, Tinta y Limón/Retazos, Buenos Aires.

SAID, Edward (1990): *Orientalismo*, Libertarias, Bartzelona (1. argitalpena, 1978an).

SHOHAT, Ella (2008): "Notas sobre lo postcolonial", MEZZADRA, Sandro (koord.): *Estudios Postcoloniales. Ensayos fundamentales*, Traficantes de Sueños, Madrid, 103-120.

SPIVAK, Gayatri (2009): *¿Pueden hablar los subalternos?*, Museu D'art Contemporani de Barcelona, Bartzelona.

Euskal feminismoa eta ezagutzaren zirkuituak: mugimendua, unibertsitatea eta emakumeen etxea

Mari Luz Esteban

1. Sarrera

Gazterik hasi nintzen feminismoan, Basauriko Emakumeen Taldean (Bizkaia) –artean ere talde horretako kidea naiz– eta Bizkaiko Emakumeen Asanbladan; eta, aurrerago, beste zenbait ekimenetan ere parte hartu dut. Nire lan-jarduera ere beti egon da feminismoari lotuta: zenbait urtez, familia plangintzako medikua izan nintzen mugimendu feministak sustatutako zentro batean, eta, gaur egun, gizarte antropologiako eskolak ematen ditut unibertsitatean, antropologia feministaren esparruan ikerketak egiteaz gainera.

Esperientzia askotariko horrek berebiziko eragina izan du nigan, nire gogoetetan, kapitulu honetan aztergai izango dudan gai orokorrari dagokionez: hau da, ezagutzaren sorrera eta zirkulazioa, feminismoaren baitan. Feminismoaren baitan (edo edozein gizarte-mugimendutan) mugimenduak berak ezagutza nola sortzen eta zirkularazten duen aztertzeko, kontuan hartu behar ditugu haren alderdi guztiak, ez soilik akademikoa –baita elkartegintzarena, profesionala eta instituzionala ere–, eta orobat behartzen gaitu teoriaren, metodologiaren eta jardun politikoaren erlazio estuari buruz gogoeta egitera.

Teresita de Barbieriren ildotik (1998), nire ustez, metodologia feministez mintzo garenean, jardunbideei edo ekintza zehatzei ez ezik, feminismoaren baitako gogoeta eta ikerketa-moldeez mintzo gara, feminismoa arlo plural modura hartuta. De Barbierik dioenez, metodologia ezin da bereizi aztertuko dituen problemetatik eta erabilitako teoretatik. Eta nik zera erantsiko nuke: metodologia ezin da bereizi ekintza politikotik ere, ekintza, teoria eta metodologia elkarrekin baitoaz eta elkarri eragiten baitiote, nahiz eta une jakin batzuetan horietako bakoitzaren gainean gogoeta egin edo/eta eragin dezakegun, bereiz harturik.

Metodologiak edo erabiltzen dituzten teknikak dira ikerketa feministen bereizgarriak? Horixe galdetzen dio Barbierik bere buruari, eta ezezkoa erantzuten du; jarrera horrekin bat nator ni ere, edo jarrera horrekin, kontrako jarrerarekin baino gehiago. Feministek abiapuntu eta esparru teoriko eta sozial askotatik abiatuta ezagutza sortzen duten heinean, eta ekintzak askotariko proposamen teorikoetatik gauzatzen dituzten heinean, nekez esan liteke gure metodologiak homogeneoak edo espezifikoak direnik. Feminismoan, hauex litzateke, nire ustez, bereizgarritzat hartzekoa: (1) inplikaturako pertsonen gizarte-posizioa eta aukera individual zein kolektiboak, eskakizun politiko, zientifiko eta etiko jakin batzuk baititugu, beste kolektibo batzuekin halaber partekatzen ditugunak; (2) gure gogoetetan sortu eta aplikatu ditugun teoriak eta kontzeptuak, espezifikoak izan arren gero gizarteratu egin ditugunak; (3) aztergai hartzen dituen problemak, espezifikoak horiek ere (zer ikuspuntutatik begiratzen ditugun kontuan hartzen badugu, behintzat). Hortaz, konfigurazio teoriko-metodologiko zehatzez ariko ginateteke gehiago, eta horiek dira, nire ustez, bereizten gaituztenak.

2. Euskal feminismoa: ezaugarriak eta eraldaketak

XX. mendearen amaierako euskal mugimendu feminista ezaugarritu beharko banu¹, esango nuke mugimendu bateratu, herritar, berdinzale eta antisistema izan dela (eta, nolabait, halaxe dela gaur egun ere).

Bateratu da, kontuan harturik Emakume Asanbladak (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa) izan zirela urte askoan antolaketa-molde nagusia eta asanblada horiek askotariko ideologia eta helburuak zituzten emakumeak batu zituztela, elkarren oso bestelako talde feministetako kide zirenak: talde autonomoak nahiz alderdi politikoetakoak, sindikatuetaoak, auzo-elkarteetakoak, enpresetakoak, etab. Denborak aurrera egin ahala, Gipuzkoako eta Nafarroako asanbladak desegin egin ziren, eta beste biek taldea osatu dute beste batzuekin batera. Baina, oro har, nire ustez, koordinatzeko eta elkarrekin modu gutxi-asko egonkorrean aritzeko gaitasun nahikoa dugula erakutsi dugu eta erakusten dugu hainbat kanpainatan –abortua, kontrazepzioa, sexualitatea, lana, indarkeria sexista...–, ospakizunetan –Martxoak 8, Ekainak 28, Maiatzak 1, Azaroak 25...– eta bestelako ekimenetan –Emakumeen Mundu Martxa, Mendekotasunaren Arretarako Euskal Sistema Publikoaren aldeko Plataforma...–. Azken esperientzia Abortu Eskubidearen aldeko Plataforma izan da, Gallardón ministroak dimisioa eman aurretik gaur egungo legea erreformatzeko egin zuen ahaleginaren kontrakoa: plataforma horrek elkarren oso bestelako eta iritzi askotako emakumeak bildu ditu.

Euskal mugimendu feminista herritarra dela ere esan liteke, oro har, eta oso deszentralizatuta eta auzo eta herrietan sakon sustraituta egon dela. Joyce Gelbek, orain urte batzuk argitaratutako “Feminismo y acción colectiva” artikuluan (1992), hiru testuinguru geografiko-historiko-politikoren azterketa erkatua egin zuen, feminismoari buruz: britainiarra, iparramerikarra eta suediarra. Honako alderdi hauetan jarri zuen arreta, azterketa hori egiteko: egiten zituzten ekintza motak, talde nagusien antolaketari eta joerari loturiko balioak, eta baliabide, estrategia eta aliantzak. Estatu Batuetako feminismoan, funtsezkoak dira presio talde deritzenak, gobernuan eragiteko ahalmena baitute. Suediar feminismoaren ezaugarri nagusia Estatuaren bidez berdintasuna lortzeko helburua da, hein handi batean. Azkenik, britainiar feminismoak askoz ere enfasi handiagoa jartzen du ideologian, eta mugimendu deszentralizatua dela eta Estatuan presentzia txikiagoa duela esan liteke. Bada, oro har, XX. mendearen hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarraldiei dagokienez, esango nuke euskal feminismoa britainiarraren tankerako mugimendu bat izan zela, tokian tokiko auto-organizazioan eta zerbitzu emakumeek berek kudeatutako zerbitzu publikoak eratzean –familia-plangintzako zentroak, informazio-zentroak...– oso oinarritua.

Aipatu dudanez, euskal feminismoa nahiko berdinzalea zen(da); ezaugarri hori, beste feminismo batzuek ere baduten arren, ezaugarri kulturala da, nire ustez, eta euskal gizarteko beste hainbat espaziotan ere ematen da. Hala, berdinzaletasunak ekimen feminista kolektibista garatzeko bidea eman du, eta ekimen horretan balio handia eman zaie talde-dinamikei eta aitortzari, izen

¹ Artikulu honetan, Hego Euskal Herriko (Espainiako estatua) feminismoaz jardungo dut: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa. Dena den, iruditzen zait eduki asko eta asko aplikagarriak zaizkiela Espainiako estatuko beste eremu batzuei ere.

propioak ere identifika badaitezke ere. Hau da, guri dagokigunez, oreka egonkor samarra dago indibidualitateen eta taldeen artean, nahiz eta horrek ez duen esan nahi oreka hori kudeatzea erraza izan denik beti.

Adierazi dudan laugarren bereizgarria, izaera “antisistema”, aurreko hirurekin estu lotuta dago: egin dira lege-aldaketak (dibortzioa, abortua, enplegua...) eta erakunde-aldaketak bideratzeko ekintzak, baina betiere herritarren mobilizazio eta antolaketa autonomo eta alternatiboarekin uztarturik. Horren ondorioz, Emakunde (Emakumearen Euskal Institutua) sortu zenean, 1988an, mugimenduaren parte handi bati arrotza gertatu zitzaion eta oso kritikoa agertu zen erakunde harekin², denboran zehar jarrera hori aldatuz joan den arren.

Aurreko mendeko laurogeiko hamarralditik aurrera, elkarteak hustuz joan ziren eta feminismoak presentzia galdu zuen kalean, nahiz eta data jakinetan kontzentrazioak egiten jarraitu eta indarkeria sexistaren kontrako protestak antolatu. Hala ere, azken urtean egindako abortuaren aldeko kanpainen eskutik, berriro azalera atera dira (eta berrasmatu egin dira) aspaldi ahaztuak ziruditen ekintza-molde batzuk. Gainera, mugimendua eraldatu eta askotarikotu egin da urteek aurrera egin ahala, mugimenduaren baitan lau arlo nagusi bereizteraino: elkartegintza³, arlo akademikoa⁴, arlo profesionala⁵ eta arlo instituzionala⁶. Lau arlo horiek harreman estua dute, batez ere maila lokalean, baina, oro har, pertsona eta proiektu jakinen bidez. Era berean, topagune klasikoek gainera (emakume-elkarteak edo emakume-taldeak, ekimenak, koordinakundeak, jardunaldiak eta hitzaldiak, etab.), gero aztertuko ditudan espazio “berriak” sendotuz joan dira, hala nola, unibertsitateko ikasgela, jabeakuntza eskolak eta emakumeen etxeak, baita argitalpen digital, blog eta gizarte-sareak ere. Espazio horietan biltzen dira beste arlo askotan ere badiharduten feministak.

Ez dugu inola ere ahaztu behar testuinguru sozial eta politikoa nabarmen aldatu dela azken hogeita hamar urteetan. Garrantzi handiko lorpenak izan dira emakumeentzat, batez ere legeetan eta arlo jakinetan –hezkuntzan, adibidez–. Baina berdintasunik ezak hortxe dirau, eta horren erakusgarri dira, besteak beste, enpleguari eta zaintzari buruzko estatistikak, edo aldaketa subjektiboak eta pentsamoldeari dagozkionak, gauzatzen biziki zailak. Gainera, gazteekin egindako ikerketek ez

² “Emakunde no nos cunde” izan zen garai hartako lelo hedatuenetako bat.

³ Elkarte feminista autonomoek edo erakunde politiko eta sindikalei atxikitakoez gainera –horietako batzuk berriak eta antolaketa-planteamendu berriak dakartzatenak–, azken hamarraldietan elkarte asko sortu dira “parafeminista” izenda litezkeenak, kultura-elkarte ere deituak, askotarikoak eta emakume asko biltzen dituztenak, oro har. Emakumeen Udal Kontseiluetan parte hartu ohi dute elkarte horiek.

⁴ 1985ean, UPV/EHUren Emakumeari buruzko Ikerketarako Mintegia sortu zen. 1994ra arte jardun zuen lanean, eta Teresa del Valle (1985) zuzendari zuen talde batek landutako *Mujer vasca. Imagen y realidad* ikerketa-proiektua (1975-1984) izan zuen abiapuntu. 2001. urtean, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Master Profesionala sortu zen, hori ere UPV/EHU, eta 2006an, Ikasketa Feministen eta Generokoen Sarea, arlo guztietako irakasle eta ikertzaileak bildu zituen. Sare horren ekimenez, Ikasketa Feministen eta Generokoen Master Ofiziala sortu zen, 2008an, eta izen bereko doktoregoa, 2009an. Azken hamarraldietan, arlo honetako irakaskuntza-jarduera (graduak edo graduondokoa) eta ikerketa-jarduera oparoa eta askotarikoa izan da UPV/EHU. Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), bestalde, Generoan Aditua titulu berekia eskaintzen dute, baina unibertsitate hori aitzindaria izan da genero-ikasketetan, Gizarte Laneko Departamentuko irakasleek urte luzez lankidetzan jardun baitute Nafarroako IPESeko Gizarte Ikerlanak Sustatzeko Institutuko Emakumeak eta Feminismoak Arloarekin.

⁵ Berdintasuneko teknikari deritzenak, mugimendu feministarekin zuzenean lotuak horietako asko, udaletan lanean ari dira, batik bat, baina badira teknikariak foru-aldundietan, Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan ere.

⁶ Erakunde garrantzizkoenak Emakunde eta Nafarroako Emakumearen Institutua dira, nahiz eta administrazioko maila guztietan dauden berdintasuneko arloak edo departamentuak. UPV/EHUK ere badu Berdintasunerako Zuzendaritza.

dute bereziki optimista izateko tarte handirik uzten⁷. Horrekin batera, feminismoaren kontrako erreakzioak eta argudioak gero eta gehiago lausotuz joan dira eta identifikatzen gero eta zailagoak dira; eta horrek berebiziko eragina du erantzuteko ahalmenean ere. Bestalde, gero eta argiago ikusten da emakume guztiak ez gaudela egoera sozial edo ekonomiko berean, ezta gutxiago ere, nahiz eta emakumeen arazoak gehiegi orokortzeko joera dugun.

Azkenik, esango nuke XXI. mendeko euskal mugimendu feministak ez duela guztiz galdu bere izaera herritarra eta antisistema, nahiz eta gaur egun askoz ere jende gutxiago dabilen elkarteetan eta ez zaion modu berean eutsi hasierako hamarraldietan eztabaida teorikoaren eta ekintza politikoaren artean sumatzen zen zuzeneko erlazioari. Bestalde, mugimendu feministako kide askok lan- eta ekonomia-egoera ona lortu dute urteen poderioz, eta aztertu beharko litzateke nola eragiten duen horrek gaur egungo feminismoan; baina halaber aztertu beharko litzateke zer eragin izaten ari den beste feminista askori eragiten dien prekaritatea, gazteek jasaten dutena, adibidez. Nolanahi ere, nire ustez, uztarketa da gaur egungo ezaugarri nagusia: hain zuzen ere, gaien eta taldeen arabera, auto-organizazioa eta hausturaren aldeko (izan nahi duten) aldarrikapenak eta ekintzak erreformen eta erakundeekiko lankidetzaren aldeko politika argi batekin uztartzea⁸. Eta merezi du konbinazio hori sakon aztertzea.

⁷ Ikus, adibidez: Rincón (2001) eta Amurrio (2008). 2010. eta 2012. urteen artean UPV/EHUko bost antropologok (Margaret Bullen, Carmen Díez, Mari Luz Esteban, Jone M. Hernández eta Elixabete Imaz) egindako ikerketa baten emaitzek erakusten dutenez, jarraitutasun nabarmenak daude berdintasunik ezean, baita gatazka asko eta hausturaren bat ere. Jarraitutasunek lotura dute, batik bat, bizitzaren ikuspegi dimorfiko eta naturalizatu batekin, zeinak baitirauen ia ukigabe eta eragiten baituen esparru askotan (amatasuna, sexualitatea, enplegua...). Hausturak pertsona jakinen eraginez gertatzen dira (senideak, irakasleak...), edo testuinguru feministen eraginez, baina orobat gertatzen dira genero desberdintasunek hain nabarmen markatuta ez dauden jardueretan.

⁸ Santiago Alba Ricok *¿Podemos seguir siendo de izquierdas?* liburuan dioenez (2013), gaur egun ezkertiarra izateak berarekin dakar iraultzailea izatea ekonomiari dagokionez, erreformista izatea erakundeei dagokienez, eta kontserbadorea izatea antropologiari dagokionez (anaitasuna eta elkarren arteko zaintza berreskuratzea).

3. Ezagutzaren ekoizpenerako eta zirkulaziorako metodologiak: azken hamarraldietako aldaketak

Hirurogeita hamarreko urteetan eta laurogeiko hamarraldiaren hasieran, bizitasun handiko testuinguru politiko bat sortu zen, Francoren heriotzaren ondotik, eta emakume-talde ugari sortu ziren denbora gutxian, eskubide eta baldintza sozial eta legalen egoera negatiboak bultzatuta eta kaleetan eta languneetan feministek zuten presentzia nabarmenari esker.

Zein izan zen garai hartan ezagutzaren sorkuntza eta zirkulaziorako erabilitako metodologia nagusia? Hego Euskal Herrian, beste hainbat tokitan bezala, prestakuntza eta gogoeta auzo eta herrietako taldeetan lantzen ziren, edo beste erakunde eta sektore batzuetako taldeen baitan, guztiak ere lau emakume asanbladetan bildurik (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa). Talde horien funtzionamenduaren oinarria autokontzientziaren filosofia zen; hau da, teoriaren eta norberaren esperientziaren arteko erlazioa, baina, betiere, feminismoaren ikuspegi oso politizatu eta ekintzaile bati jarraituz.

Autokontzientzia taldeak Estatu Batuetako feminismo erradikalaren baitan sortu ziren aurreko mendeko hirurogeiko hamarraldiaren amaieran. Kathie Sarachild hasi zen terminologia hori erabiltzen, 1967an, *New York Radical Women* (Malo 2004: 22) deritzenetan. Horrela, “1970eko hamarraldiko feminismoaren motor nagusietako bat” (*Ibidem*: 25) izan zen autokontzientzia. Feminista haiek azpimarratu zuten, “pertsonala politikoa da” filosofiaren ildoko jardunbide hark izaera zientifikoa zuen. Hona hemen nola azaltzen duen Sarachildek berak (1978):

“Autokontzientzia egiara iristeko metodo modura eta ekintzarako eta antolaketarako bitarteko modura hartzen zen, aldi berean. Antolatzaileek egoeraren azterketa egiteko mekanismo bat zen eta, aldi berean, emakume haiek antolatzen ari ziren beste emakumeei (eta haiek ere antolatuko zuten beste jende bati) eskaintzen zitzairen mekanismo bat. Era berean, ez zen hartzen gerora beste ekintza bat ekarriko zuen garapen feministaren fase soil modura, baizik eta estrategia feminista globalaren funtsezko osagai modura” (Malo 2004: 23).

Basauriko Emakume Taldean parte hartzen hasi nintzenean, hirurogeita hamarreko hamarraldiaren bukaeran, esku artean genituen testuak irakurtzera eta horien gaineko eztabaida egitera mugatzen zen gure prestakuntza, batik bat; testu horietako asko Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren aldian aldiko bileretan eztabaidatzen ziren, halaber. Testu argitaratu edo mekanografiatuak izaten ziren, eta, sarritan, unean-unean lantzen ari ginen eztabaida edo kanpaina zehatzekin lotuak (abortua, kontrazepzioa, dibortzioa, sexualitatea, lana...), baina baziren bestelako argitalpenak ere: saio teorikoak, literatura lanak...⁹. Eta beti lotzen genituen teoriak (askotariko joeretakoak) gure esperientziekin, teoria haiek berresteko, baina baita haiek ezeztatzeko ere, edo gutxienez, haiei ñabardurak egiteko. Baina, autokontzientzia lantzeaz gainera, oso politizatuta geunden, eta

⁹ Gogoan dut, adibidez, eztabaida sutsuak sortzen zituen dokumentu bat, “La tiranía de la falta de estructuras”, hirurogeita hamarreko hamarraldian Jo Freemanek idatzia, zeinetan hitz egiten baitzuen mugimendu politikoen antolaketa dela-eta sortutako arazoez. Mundu osora zabaldu zen testu hura. Gogoan dut, halaber, irrikaz irakurri genituela Simone de Beauvoirren memoria guztiak.

etengabe eztabaidan jarduten genuen orotariko gaiez, ondoren, eztabaida haiek ekintza zehatz bihurtzen saiatzeko. Aldi berean, borroka-moldeez (adibidez, biolentzia edo ez-biolentzia...) eta antolaketa-moldeez (militantzia bakarra edo bikoitza...) ere eztabaidatzen genuen. Alegia, ideia bikoitz hau genuen abiapuntu: “pertsonala politikoa da”, baina “politikoa pertsonala da”, halaber.

Gainera, teoria eta eztabaida horiek laburtu edo landu egiten ziren –talde-lanean, batik bat–, eta hitzaldi edo eskuorrien bidez zabaltzen genituen. Hitzaldiak ere idazten ziren, jardunaldi tematiko nahiz orokorretan aurkezteko; horien artean, bereziki azpimarratzekoak dira Euskal Herriko Jardunaldi Feministak, zeinetan beti parte hartu baitute euskal erakunde feministek antolaketa-lanetan. Lehen jardunaldi feministak (Euskal Herriko Emakumeen I. Jardunaldiak) 1977an egin ziren, UPV/EHUko Leioako Campusean (Bizkaia). Euskal Herriko II. eta III. Jardunaldi Feministak, berriz, 1984an eta 1994an egin ziren, hurrenez hurren, Leioan. Eta Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak (orain arteko azkenak) 2008an izan ziren, Portugaleteko Nautika Eskolan (Bizkaia).

Gaur egun, jabetzen naizen arren denboran jauzi handia egitera noala, oso aldatuta daude prestakuntza eta eztabaida-dinamika horiek. Alde batetik, ekoizpen teoriko feminista izugarri ugaritu da, eta zaila da pertsona bat proposamen guztien jakinaren gainean egotea. Gainera, sendotuz joan dira, esan dudanez, espazio akademikoak eta ikerketakoak; horrek jakintzaren espezializazio bat ekarri du (eta hierarkizazioa), eta ordezkatu egin du ezagutza ekintzaile talde txikitik pentsatzeko eta sortzeko estrategia, nahiz eta estrategia horrek oraindik hor jarraitzen duen, askoz ere ahulago eta ezkutuagoan bada ere. Hala, bereizi egin dira, alde batetik, pentsatzea eta ikertzea, eta, bestetik, egitea, nahiz eta oraindik badiren emakume batzuk arlo guztietan parte hartzen dutenak eta guztietatik elikatzen direnak, eta ezagutzaren ekoizpen-guneen arteko elkarreaginak argi ez dauden. Hau da, aurrera egin dugu maila teorikoan, espezializazioan eta profesionalizazioan, baina galdu egin dugu horizontaltasunari eta ikerketa (arautua nahiz arautu gabea) gure esperientziarekin uztartzeari dagokienez, baita ideiak eta jakintza osotasunean nola sortzen eta artikulatzen diren ikusgarri egiteari dagokionez ere. Halaber, galera izan dugu orobat prestakuntzaren eta ekintza politikoaren arteko zuzeneko erlazioan, talde-ekintzari dagokionez, gutxienez.

Hainbat eztabaidagai atera daitezke hortik, adibidez, egiletzen auziari buruzkoa, edo jakintza kolektiboaren kontzentrazioarena edo/eta jabetza dei genezakeenari buruzkoa. Askotariko espazioetan izan dudana aldibereko esperientziaren bidez, egiaztatu dut, oro har, taldeetan sortutakoa nekezago zabaltzen dela eta batik bat zirkuitu subalternoetan barrena zabaltzen dela, aditu deritzenek sortutakoak baino aitortza apalagoa dutela eta/edo iturria aipatu ere egin gabe erabili ohi direla. Izatez berdinzaleak bagara ere, feministei ere eragiten digu gure gizartean nagusi den “adituen kulturak” eta, askotan, ez dira mundu akademikoaren irizpide berak aplikatzen gainerako espazioetan. Horren ondorioz, gerta daiteke, adibidez, pertsona bati egozten zaizkiola berez talde jakin batean sortuak diren ideia edo irakurketa batzuk. Ezagutzaren hierarkizazioa taldeen artean ere gerta daiteke, mugimenduaren barruan duten prestigioaren edo “glamourraren” arabera.

Bestalde, ikerketaren kalitatea balioesteko kultura akademiko hegemonikoak –aipu sistema endogamiko eta murriztaile batean oinarritua– eta ezagutza unibertsitatetik kalera noranzko bakarrean “transmititzen” delako ideiak zaildu egiten dute ezagutza hori nola sortzen den eta lanketa teorikoaren eta ekintzaitzaren arteko elkarreagin konplexuak erakusteko mapa bat osatzea.

4. Proposamen teorikoen eraginaren bilakaera

Ezagutza feministaren zirkuitu izendatuko ditudanak aztertu aurretik, azaldu nahi nuke prozesu horietan zenbaterainoko garrantzia duen proposamen teorikoen bilakaerak eta teoria berriak agertzeak eta zabaltzeak.

Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarraldietako euskal feminismoan eta, oro har, Espainiako estatuko feminismoan, filosofia izan zen diziplina nagusia, edo nagusietakoa, gogoetak eta eztabaidak sortzeko garaian. Celia Amorós eta Amelia Valcárcelen moduko filosofoek berdintasunari edo botereari buruz osatutako teoriak suhertasunez irakurtzen edo entzuten ziren haien hitzaldietan. Are gehiago, esan liteke garai hartako euskal feminismoa hurbilago egon zela berdintasunaren proposamenetatik, diferentziaren proposamenetatik baino, eta, seguru asko, horrek berebiziko eragina izango zuen oraindik identifikatu gabe ditugun zenbait alderditan.

Gaur egun, bi arlo “izar” dira aipatzekoak: ekonomia feminista, alde batetik, eta queer teoria nahiz transfeminismoarekin zerikusia duen oro, bestetik. Bi esparru dira oso ongi bereziak eta elkar artikulatzen ez dutenak, seguru asko feminista gazteen artean areago. “Dualitate” edo bitarikotasun teoriko hori interesgarria da, lotura duelako, aldi berean, feministen kezken artean nahiko indar izaten jarraitzen duen bereizketa batekin, hain zuzen ere, gizarte eta ekonomia arloko berdintasunik ezaren eta identitatea eta sexualitatearen, arteko bereizketarekin. Nancy Fraserrek erabilitako terminologia gure eginez (2000), esan liteke gaur egungo feminismoa indar handia jartzen ari dela birbanaketa politiketan –eta ez da harritzekoa, noski, kontuan harturik krisi-egoera bizi dugula–, baina oraindik arreta handia jartzen du aitortza politiketan ere.

Aurreko garaian bezala, mota bateko nahiz besteko proposamenek arrakasta izateak lotura estua du pertsona eta talde jakin batzuen sendotasunarekin, baina baita hainbat aldaketa politiko eta ekonomikori erantzuteko premiarekin ere, eta emakumeak eta gizonak deritzen horien arteko ustezko desberdintasunen azterketan aurrera egiteko premiarekin. Queer teoriari dagokionez, gehituko nuke erakartze-ahalmen handia duela eta ahalmen hori Judith Butler egilearen maila intelektualari zor diola –gure garaiko Simone de Beauvoir–, hein handi batean; baina asko zor dio, halaber, feminista gazteenek begirada eta espazio propioak bilatzeko egiten ari diren ahaleginari. Edonola ere, teoria horiek halako distira-efektu bat eragin ohi dute, halako lilura-efektu bat, mahai gainean ditugun arazo edo galdera guztiei erantzuteko ahalmena balute bezala.

5. Elkartzeko eta ezagutza ekoizteko bi gune: unibertsitateko ikasgela eta emakumeen etxea (jabekuntza eskola)

Lehen esan dudanez, jakintza sortzeko espazio klasikoez gainera (modu autonomoan nahiz erakunde politiko edo sindikatuetan la egiten duten talde edo elkarte feministak, koordinakundeak, plataformak, jardunaldiak, etab.), nire ustez, gaur egun funtsezko hiru espazio iraunkor daude feminismoan, ekintza espezifikoa bideratzeaz gainera mota askotako emakumeen (eta gizon batzuen) bilgune gisa dihardutenak eta aukera ematen dutenak ezagutza eta ekintzailtza uztartzeko, modu asko eta interesgarrietan: lehenik, unibertsitateko ikasgela edo eremua; bigarrenik, emakumeen etxeak, non biltzen baitira emakume-taldeak, berdintasun-zerbitzuak eta jabekuntza eskolak¹⁰; eta, hirugarrenik, Internet, baina ez dut testu honetan horretaz luze jardungo, ez dudalako esparru hori sakon ezagutzen.

Ikasgela, bereziki graduondoko ikasketetan, unibertsitateko topagune nagusia da; nolahi ere, badira beste batzuk ere, hala nola bulegoak eta askotariko ekitaldiak. Espazio horrek aparteko aukera ematen du prestakuntza feminista sustatzeko eta ezagutza feminista ekoizteko eta legitimatzeko. Eta horrek eta irtenbide profesionala aurkitzeko aukerak erakarrita, feminista asko iristen ari dira unibertsitatera, gazteak eta ez hain gazteak, ekintzaileak eta ez-ekintzaileak.

Baina gune horretan, abiapuntuko baldintza da “badakitenen” –irakasle eta ikertzaileak, irakasten dutenak– eta “ez dakitenen” –ikasleak– arteko bereizketa. Unibertsitate-sistemaren oinarrizko ideia da ikasleak ezagutza jasotzera sartzen direla unibertsitatean, eta, hortaz, ez da beti erraza izaten zirkulazioa kontrako noranzkoan ere gertatzen dela erakustea eta/edo ikasleen jakintza baliatzea. Gainera, horrek esan nahi du urratu egiten direla mugimendu feministak bereizgarri lituzkeen berdinaletasuna eta horizontaltasuna. Bereizketa hori sendotzen du, halaber, irakasleen adinaren eta ikasleen adinaren artean izaten den aldeak. Nolanahi ere, ikertu egin beharko da praktikan hori guztia nola orekatzen ari den edo zer ñabardura egiten ari diren.

Dena den, eremu horren alderdi positibo gisa azpimarratu nahi nituzke, lehenik eta behin, unibertsitateak prestakuntzarako ematen duen aukera bikaina, oso beharrezkoa baita gaur egun, kontuan hartuta emakumeek garai batean baino gutxiago parte hartzen dutela elkarteetan eta, izugarritzko informazio pila egonik eskuragarri, ezinbestekoa dela informazio hori antolatzea. Unibertsitate-ikasketek, beraz, aukera ematen dute prestakuntza orokorra lantzeko, baina baita askotariko gai eta ikuspegieta sakontzeko eta espezializatzeke ere. Bigarrenik, prestakuntza hori arlo profesionalean baliatzeko aukera eman dezake. Eta hirugarren alderdi positiboa da, irakasleek ikasleek bezain aintzat hartu ohi ez duten arren, batzuek nahiz besteek elkar

¹⁰ Euskal Herrian, udalerrri gutxitan daude emakumeen etxeak, adiera hertsian, baina baliteke datozen urteetan beste batzuk sortzea. Lehenengoa Ermuan ireki zuten (Bizkaia), eta haren ondotik etorri ziren Donostiakoa (Gipuzkoa), Basaurikoa (Bizkaia) eta Ondarroakoa (Bizkaia). Hala ere, udalerrri askotan daude berdintasunerako arloak eta zerbitzuak, emakumeentzako jarduerak sustatzen dituztenak, jabekuntza eskola modura nahiz bestela. Emakumeen etxez ari naizenean, beraz, barne hartzen ditut nire ustez garapen optimoa era horretako etxeetan iristen duten bestelako konbinazio batzuk.

aberasten dutela beren esperientzia, ezagutza eta lanaren bidez¹¹. Hori guztia kontuan hartuta, unibertsitatea funtsezko gunea da, gaur egun, ezagutza feministaren zirkuituak izendatu ditudan horietan.

Bigarren topagunea Emakumeen Etxeak dira. Etxe horietan askotariko elkarteak biltzen dira eta askotariko emakumeek eta feministek jotzen dute informazio bila edo berdintasun-teknikariekin eta bestelako profesionalekin (begiraleak, abokatuak, psikologoak, soziologoak...) lankidetzajarduerak egitera. Etxeetan antolatzen dituzten jardueren artean (hitzaldiak, jardunaldiak, erakusketak...) bereziki aipatzekoak dira jabekuntza-eskolekin¹² loturikoak.

Euskadiko lehen jabekuntza-eskolak Bizkaian sortu ziren, 2003an, zenbait udaletan berdintasun arloan lanean ari diren eta mugimendu feministarekin zuzeneko lotura duten berdintasun-teknikarien ekimenez. Eskola horiek modu koordinatuan dihardute; gogoeta, prestakuntza eta topaketarako guneak dira; eta haiek bideratutako jardueretan ehunka emakumek parte hartzen dute urtean. Hain zuzen ere, eskolen helburua da emakumeen partaidetza politiko eta soziala sustatzea, politika publikoetan eragiteko modua izan dezaten. Prestakuntza-programak oso zabalak dira, eta askotariko alderdiak lantzen dituzte, hala nola jarduera espezifikoki feministak (prestakuntza teorikoa, irakurraldiak, eztabaidak...), emakumeen sektore batzuetan eragin berezia duten arazoei buruzko tailerrak ere (gizarte-trebetasunak, informatika, osasun-arazoak...) nahiz kultura-jarduerak (literatura, artea, antzerkia, zinema...). Eskola horiek ibilbide laburra egin dute oraindik, denborari dagokionez, eta ez da egin horiei buruzko sakoneko ebaluaziorik; hortaz, ez dakigu zenbaterainoko inpaktu erreala duten "ikasleen" bizitzan edo emakumeen egoera orokorrean; baina iruditzen zait funtsezko guneak izan direla prestakuntza feministan jauzi kualitatibo handia egiteko¹³.

Emakumeen etxeetan, harremanak askoz ere zabalagoak eta askotarikoagoak dira unibertsitatean baino, eta orobat dute horizontalagoak izateko joera dute, egitura bera horizontalagoa den heinean. Etxea esparru ofizialaz kanpoko gune alternatibo bat izateak ere erraztu egiten du horizontaltasun hori. Baina gerta liteke hori horrela izateak botere-erlazioak ezkutitzea, eta hori ez da beti gertaera positiboa. Eragozpenen artean aipatzekoa da, halaber, han sortzen eta gertatzen denak askoz ere eragin gutxiago duela ezagutzaren sisteman, eragin zuzen eta agerikoari dagokionez, gutxienez.

Kapitulu honetan iradoki edo planteatutako galdera batzuk ekarri nahi nituzke orain mahai gainera: nola iristen da gizartera edo beste gune batzuetara edonolako gune feministetan sortutako ezagutza, nola eraldatzen da, nola eragiten du, nola proiektatzen da gizartera edo beste gune

¹¹ Irakaskuntzaz beraz gainera, oso ondorio positiboak izaten ditu Master Amaierako Lanak eta Doktorego Tesiak egiteak, bai egileentzat bai lan horien zuzendarientzat.

¹² *Jabekuntza* kontzeptua aurreko hamarraldiko hirurogeiko hamarraldian hasi zen erabiltzen, Ameriketako Estatu Batuetan eta Latinoamerikan, afroamerikarren eta pobreen eskubideen aldeko borroketan. Baina hirurogeita hamarrek hamarraldian hedatu eta sendotu zen, emakume-mugimenduen eskutik. Kontzeptu horrek aurrez kontzientziarioari eta partaidetza sozio-politikoari buruz eman ohi ziren definizioak aberastu ditu, eta horitatik harago jo du; izan ere, eskubide eta testuinguru politiko eta kulturaleri erreferentzia egiteaz gainera, aldaketa zailtzen duten prozesu psikologiko, politiko, kognitibo eta ekonomikoak integratzeko xedea du (de León 1999: 191). Ikus, halaber, Denman, Aranda eta Cornejo (1999). Norma Vázquezek (Euskal Herriko Jabekuntza Eskoletako ohiko irakasle eta lankidea) jabekuntzari buruzko bi definizio bildu ditu "Las escuelas para el empoderamiento" testuan (Vázquez 2009): Naila Kabeer egilearena, zeinak dioen jabekuntza dela "*personek bizi-aukera estrategikoak egiteko duten trebetasuna areagotzea, aurrez trebetasun horiek ukatuak zitzaizkien testuinguru batean*"; eta Sarah Mosedale egilearena, zeinaren arabera jabekuntza baita "*emakumeek (desiratzea, izatea eta egitea) posible zaiena birdefinitzeko eta zabaltzeko prozesua, egoera batean zeinetan ezartzen baitziztaizkien murrizketak, gizonekin alderatuta, nahi zutena izateagatik eta egiteagatik*".

¹³ Euskal Herriko jabekuntza-eskolen analisia aurki daiteke hemen: Fernández Boga (2012).

batzuetara? Nola itzultzen ari dira kontzeptuak, ideiak, teoriak, praktikak? Nola administratzen ari dira feminista, talde eta guneen arteko botere-erlazioak? Badago zubi-espaziorik emakumeen artean, edo emakume zubirik, jarrera zubirik? Zenbateraino bihurtzen ari da ezagutza hori ekintza politiko zehatz?

Hasieran esan dudanez, espazioen arteko erlazioak banakoen bitartez bideratzen dira nagusiki, banako horiek espazio batzuetatik beste batzuetara aldatzen direlarik. Pertsona horiei esker igarotzen da jakintza batetik bestera eta sortzen da jakintza, haiek egiten dituzten jardura askotarikoen bidez (irakurraldiak, hitzaldiak, ikastaroak, jardunaldiak, elkarrizketa informalak, elkarteen bilerak, eztabaidak...). Zirkuitu horietan, ideiak eta edukiak trukutzen eta proiektatzen dira sozialki, askotariko euskarrietan (argazkiak, bideoak, testuak...), eta hedabideen edo gizarte sare feministen nahiz ez-feministen bidez hedatzen dira, era berean.

Nire ustez, funtsezkoa da zirkuitu horien osagai edo kate maila guztiak azalera ateratzea eta *beste*a kontuan hartzea, jakintza ez partzializatzeko eta guztioi eragiten digun adituen kulturari aurre egiteko, edo, gutxienez, ñabartzeko. Adibidez, produktu akademikoetarako dagokienez, kontu handiz jaso beharko genituzke unibertsitateko nahiz unibertsitatetik kanpoko orotariko erreferentziak. Hala ere, jabetzen naiz ezagutzak beste era batera administratzeko, ezinbestean eragin beharra dagoela ezagutzaren sisteman (unibertsitate-sisteman).

6. Unibertsitate-sistema eta feministen arteko aliantzak

Orain arte, feminismoaren panorama orokorra marraztu dut, orain arte, baina zeharka baino ez dut aipatu bizi dugun unibertsitate-kultura hegemonikoa. Kontuan harturik kultura hegemoniko horrek joera duela askotariko sektoreetan sortutako jakintza partzializatzeko eta hari ez ikusiarena egiteko, zuzeneko lotura du kapitulu honen gaiarekin.

Oro har, esan daiteke unibertsitate-sistema eraldatuz joan dela XX. mendearen azken hamarraldietan eta XXI. mendearen hasieran, hegemonia neoliberalaren testuinguruan. Ana Rivas eta Begoña Leyra antropologoek diotenez, testuinguru horrek eragin du *“paradigma aldaketa bat arlo sozialaren gobernu- eta kudeaketa-logiketan, zeina islatu baita Europar Batasuneko herrialdeek inplementatutako politika publikoetan”* (Rivas eta Leyra 2014: 119).

Egile horien ustez, gatazkan eta Estatuak gatazka hori erregulatzeko duen boterean oinarrituriko gobernagarritasun-eredu batetik kudeaketa- eta negoziazio-eredu batera jauzi egin dugu, gobernantza-eredua deritzonera. Eredu hori bertan parte hartu behar duten banakoen eta taldeen esku legoke orain; eredu horretan, gizarte eragile klasikoei (mugimenduak alderdiak sindikatuak...) tokia hartu du *“gizarte zibil eratutako eragileen sorta zabal batek: enpresek, finantza korporazioek, fundazioek, boluntarioek, etab.”* (*Ibidem*: 120). Horretan berebiziko eragina izan du kalitatearen, bikaintasunaren, berrikuntzaren, gaitasunen, konpromisoaren eta abarren gaineko diskurtso berriak. Are gehiago: kasu batzuetan, bere gain hartu ditu zenbait mugimenduren termiko giltzarriak –feminismoarenak, adibidez–, hala nola: *“askatasuna, partaidetza, jabekuntza, erantzukizuna, autogestioa, sorkuntza, norberaren burua errealizatzea, berrikuntza...”* (*Ibidem*: 121). Horrek ezkutatu egin du proposamenen jite neoliberalak. Eta honela definituta gelditu da gobernantza berria: *“esparru politikotik esparru teknikora iragatea, herri-partaidetzatik adituen sistemetara, arlo publikotik pribatura, subjektibotasunetik subjektiora eta hiritarretik bezerora”* (*Ibidem*: 217).

Testuinguru horretako unibertsitate-kultura hegemonikoan, zeinak eragiten baitio, zalantzarik gabe, feminismoari ere eta zeinari buruz ez baikara egiten ari behar adinako gogoetarik, mugimendu gisa, irakaskuntza bigarren mailan dago, eta burokrazia eta mota jakin bateko ikerketaren eta ikerketaren aitortza jakin baten bultzada nagusitzen dira. Eredu horretan, ez dute tarterik edo/eta ez dira merezimendutzat hartzen testu honetan aipatu diren feminismoaren (eta beste mugimendu batzuen) pentsatzeko eta jarduteko ohiko moldeekin loturiko jarduerak. Noiz, eta, gainera, hainbat arrazoi direla medio (inplikaturako pertsonen kopurua eta hazteko aukerak, diziplinen tradizioak, feminismoari buruzko zuzeneko nahiz zeharkako erreakzioak) feminismo akademikoaren zabalkundearen nolabait mugatuta dagoela ikusten ari garen une batean.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta amaitzeko, nire ustez ezinbestekoa da, ezagutzaren zirkuitu feministen hedadura eta konplexutasuna osorik agerian uzteaz gainera, orotariko arloetan ari garen feministen arteko aliantzak hobeto sistematizatzea eta formalizatzea, elkar sendotzeko eta laguntzeko.

Bibliografia

ALBA RICO, Santiago (2013): *¿Podemos seguir siendo de izquierdas?*, El Tinter, Bartzelona.

AMURRIO, Mila (2008): *Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao*, txostenaren ondorioak, eskuragarri: http://www.bilbao.net/cs/Satellite?c=BIO_Generico_FA&cid=3000910950&language=en&pageid=3000059210&pagename=Bilbaonet%2FBIO_Generico_FA%2FBIO_generico

DE BARBIERI, Teresita (1998): "Acerca de las propuestas metodológicas feministas", BARTRA, Eli (bil.): *Debates en torno a una metodología feminista*, UAM-CSH, Mexiko, 103-139.

DE LEÓN, Magdalena (bil.) (1997): *Poder y empoderamiento de las mujeres*, Tercer Mundo Editores / Universidad Nacional de Colombia, Bogotá, Kolonia.

DEL VALLE, Teresa *et al.* (1985): *Mujer vasca. Imagen y realidad*, Anthropos, Bartzelona.

DENMAN, Catalina, Patricia ARANDA eta Elsa CORNEJO (1999): "Magdalena de León (bil.): *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogotá: Tercer Mundo Editores/Universidad Nacional de Colombia", *Reseña, Región y Sociedad*, 11(18),189-197.

FERNÁNDEZ BOGA, Mercedes (2012): *Escuelas para el empoderamiento de las mujeres: nuevas experiencias de formación y transformación feminista en la sociedad vasca*, Master Amaierako Lana, Master en Estudios Feministas y de Género, UPV/EHU.

FRASER, Nancy (2000): "¿De la redistribución al reconocimiento? Dilemas de la justicia en la era 'post-socialista'", *New Left Review - Pensamiento crítico contra la dominación*, 0, 126-155.

FREEMAN, JO: "La tiranía de la falta de estructuras", eskuragarri: http://www.nodo50.org/mujeresred/feminismos-jo_freeman.html

GELB, Joyce (1992): "Feminismo y acción política", DALTON Rusell J. eta Manfred KUECHLER (arg.): *Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político*, Edicions Alfons el Magnànim, Institució Valenciana d'Estudis i Investigació, Generalitat Valenciana, Valencia, 193-217.

MALO, Marta (2004): "Prólogo", en: VV.AA.: *Nociones comunes. Experiencias y ensayos entre investigación y militancia*, Traficantes de Sueños, Madril, 13-40.

RINCÓN, Ana (2001): *Portaera maskulinoen eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian*, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, Vitoria-Gasteiz.

RIVAS RIVAS, Ana María eta Begoña LEYRA FATOU (2014): "Políticas públicas y nuevas formas de gobernabilidad social", en ANDREU, Agustí *et al.* (arg.): *Periferias, fronteras y diálogos. Una lectura antropológica de los retos de la sociedad actual*, Publicacions URV-Univesitat Rovira i Virgili, Tarragona, 119-135.

SARACHILD, Kathie (1978): "Consciousness-Raising: A Radical Weapon", *Feminist Revolution*, Random House, Nueva York, 144-150, eskuragarri: <http://scriptorium.lib.duke.edu/wlm/fem/sarachild.html>

VÁZQUEZ, Norma (2003): "Las escuelas para el empoderamiento", eskuragarri: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/32871.pdf>

EGILEENTZAKO ARAUAK

Jatorrizko lanak bidaltzea

Erredakzio Kontseiluak zehatz aztertuko ditu aldizkariak duen xedeari loturik bidaltzen dizkioten lan guztiak. Artikuluak argitaragabeak izango dira, beste hedabide batean argitara emateko inoiz aurkeztu gabeak.

Posta elektronikoko helbide honetara bidali beharko dira: hegoa@ehu.es. Posta elektronikoa bidez harremanetan jarriko gara artikulu sinatzen duen pertsona batekin (lehen egilearekin, berariaz bestelakorik adierazten ez bada), eta bidalitako lana hartu izanaren agiria igorriko diogu.

Aurkeztutako lanak ebaluatzea

Jasotako artikuluak ebaluatzen hasteko, behar bezala bete beharko dira Hegoa Lan-koadernoan ediziorako arau guztiak. Ebaluazioaren bidez, kalitate gehien duten lanak hautatuko dira, aldizkariaren izaera dela-eta jatorrizko lanen kopuru mugatua baizik ezin baita argitaratu. Prozesu horretan, Erredakzio Kontseiluak hasierako aukeraketa egingo du, eta Argitalpen Kontseiluko kide aditu batek edo kontseilu horrek izendatutako lagun batek berrikusketara egingo du gero. Azken kasuan, kanpoko beste aditu batzuek egin ahal izango dute berrikusketara. Erredakzio Kontseiluak artikuluen egileei jakinaraziko die testua onartu ala baztertu den, eta, era berean, berrikusi behar ote den.

Argitaratzeko arauak

Egileei berariaz eskatzen zaie arreta handiz berrikus ditzaten testua eta erabiltako terminologia, eta alde batera utz ditzaten formulazio nahasgarriak eta espezializatu egia den jargoa ere bai. Horrez gain, sexista ez den hizkera erabiltzea gomendatzen dugu.

Testua 12 zenbakiko Arial letrarekin idatziko da, gehienez 50 orri izango ditu (DIN-A4 tamainakoak), eta orri bakoitzean 3.000 karaktere sartuko dira gehienez (espazioak ere barne hartuta), oharrak eta bibliografiako aipamenak aintzat hartu gabe. Oharrek ez dute 5 orri baino gehiago hartuko, eta aipamen bibliografikoek, berriz, 7 orri. Oharrak orriaren oinaldean jarriko dira, eta zenbakituta joango dira, elkarren hurreneko zenbaki arabiarrekin. Testua doc (Microsoft Office Word) edo odt (OpenOffice Writer) formatuan aurkeztuko da.

Ez da ezer azpimarratuko, ez eta letra lodiz idatziko ere, izenburuetan izan ezik: izenburuak letra lodiz idatziko dira, 14 tamainan, eta 1., 1.1., 1.1.1., 2... eskemaren arabera zenbakituta. Testuko esaldi edo hitzen bat nabarmendu nahi izanez gero, letra ezanez idatziko da. Dezimalak idazteko, koma erabili beharko da beti.

Bidaltzen diren artikuluen lehenengo orrian, izenburuaren eta egilearen edo egileen aipamenaren ondoren, datu hauek azalduko dira: izena, abizenak, posta elektronikoa eta instituzioko datuak edo lantokia. Laburpen bat jasoko da, gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz; gehienez bost hitz gako hautatuko dira, artikuluen edukien adierazgarri, eta horiek ere gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz jarriko dira.

Euskaraz edo ingelesez idatzita dauden testuei dagokienez, egileek bere aurkeztu beharko dute gaztelaniazko itzulpena.

Sartzen diren koadroak, irudiak, taulak eta mapak testuan ondo txertatu beharko dira, behar bezala ordenatuta, eta jatorrizko iturrien identifikazioa zehaztuta. Izenburu egokiak izango dituzte, edukien adierazgarri. Koloreak erabiliz gero, erabili grisaren eskala, eta bereizi lerroak sinbolo edo trazadura desberdinekin, aleak zuri-beltzean inprimatuko baitira. Hauek guztiak, gainera, pdf, xls (Microsoft Office Excel) edo ods (OpenOffice Calc) formatuetan bidali beharko dira bakoitza bere aldetik. Irudiek batera, oinarritako datuak dituzten fitxategiak bidaliko dira.

Egileak egokitatzat jotzen duenean, formula matematikoak zenbakituko ditu, zenbaki arabiarak erabiliz, kortxete artean jarrita formulen eskuinaldean. Formula matematikoek eta testuko gainerako sinbolo guztiak, pdf formatuan bidali beharko dira.

Aipamen bibliografikoak testuan sartuko dira, parentesi artean, eta egilearen abizena, eta, jarraian (koma baten ondoren) argitalpen-urtea (a, b, c, eta abar berezita, elkarren hurreneko ordenan, zaharretatik berrienera, egile beraren urte bereko lan bat baino gehiago aipatuz gero), eta, hala behar denean, orria adieraziko dira.

Adibidez:

(Keck eta Sikkink, 1998)

(Keck eta Sikkink, 1998; Dobbs et al., 1973)

Oharra: et al. erabiliiko da hiru egile edo gehiago direnean.

(Goodhand, 2006: 103)

(FAO, 2009a: 11; 2010b: 4)

(Watkins eta Von Braun, 2003: 8-17; Oxfam, 2004: 10)

Lanaren amaieran, zerrenda bibliografiko osoa jarriko da, egileen arabera hurrenkera alfabetikoan, eta ondoko formak erabiliz, artikulua aldizkarian, liburuan edo liburu bateko kapituluaren atera den bereiziz. Hala behar denean, parentesi artean jarriko da lehen edizioaren edo jatorrizko bertsiorearen data.

Aldizkariako artikulua:

SCHIMDT, Vivien (2008): "La democracia en Europa", Papeles, 100, 87-108.

BUSH, Ray (2010): "Food Riots: Poverty, Power and Protest", Journal of Agrarian Change, 10(1), 119-129.

Liburua:

AGUILERA, Federico (2008): La nueva economía del agua, CIP-Ecosocial y Los libros de la catarata, Madrid.

LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda Jubeto (arg.) (2011): La cooperación y el desarrollo humano local. Retos desde la equidad de género y la participación social, Hegoa, Bilbo.

Liburuko atala:

CHIAPPERO-MARTINETTI, Enrica (2003): "Unpaid work and household well-being", hemen: PICCHIO, Antonella (arg.): Unpaid Work and the Economy, Routledge, Londres, 122-156.

MINEAR, Larry (1999): "Learning the Lessons of Coordination", hemen: CAHILL, Kevin (arg.): A Framework for Survival. Health, Human Rights and Humanitarian Assistance in Conflicts and Disasters, Routledge, New York eta Londres, 298-316.

Webetik hartutako baliabideei dagokienez, behar diren datuak aipatuko dira, liburua, liburuko artikulua, aldizkaria edo egunkariako artikulua den kontuan hartuta. Argitalpen elektronikoa data eta aipua hartu zen eguna jasoko dira, parentesi artean, bai eta helbide elektronikoa edo url-a ere, < > ikurren artean, "hemen dago eskuragarri" esaldiaren atzetik. Adibidez:


NDF (2007): "Declaración de una misión del personal técnico del FMI en Nicaragua", hemen: Comunicado de Prensa, 07/93 zk., 2007ko maiatzaren 11 (2007ko abuztuaren 8an kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.imf.org/external/np/sec/pr/2007/esl/pr0793s.htm>>.

ELGA (2001), The DAC Guidelines: Helping Prevent Violent Conflict, Development Assistance Committee (DAC), Paris (2010eko irailaren 10ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.oecd.org/dataoecd/15/54/1886146.pdf>>

Sigla edo laburdura bat lehenengo aldiz erabiltzean, bere esanahi osoa adierazi beharko da eta, horren ondoren, parentesi artean, gero baliatuko den sigla edo laburdura jasoko da.

COPYRIGHT-AREN OHARRA

Hegoa Lan-koadernoak sailean argitaratzen diren artikulua guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratuko dira:

 Reconocimiento-NoComercial- SinObraDerivada 3.0 España

Orri honetan aurkituko dituzun agiriak Creative Commons lizentziaren babestuta daude.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Artikuluen egileak edo egileek berariaz onartu beharko dute horrela.

Más información en la web de la revista:

<http://www.ehu.es/ojs/index.php/hegoa>

LAN-KOADERNOAK
CUADERNOS DE TRABAJO
WORKING PAPERS

0. **Otra configuración de las relaciones Oeste-Este-Sur.** Samir Amin.
1. **Movimiento de Mujeres. Nuevo sujeto social emergente en América Latina y El Caribe.** Clara Murguialday.
2. **El patrimonio internacional y los retos del Sandinismo 1979-89.** Xabier Gorostiaga.
3. **Desarrollo, Subdesarrollo y Medio Ambiente.** Bob Sutcliffe.
4. **La Deuda Externa y los trabajadores.** Central Única de Trabajadores de Brasil.
5. **La estructura familiar afrocolombiana.** Berta Inés Perea.
6. **América Latina y la CEE: ¿De la separación al divorcio?** Joaquín Arriola y Koldo Unceta.
7. **Los nuevos internacionalismos.** Peter Waterman.
8. **Las transformaciones del sistema transnacional en el periodo de crisis.** Xoaquin Fernández.
9. **La carga de la Deuda Externa.** Bob Sutcliffe.
10. **Los EE.UU. en Centroamérica, 1980-1990. ¿Ayuda económica o seguridad nacional?** José Antonio Sanahuja.
11. **Desarrollo Humano: una valoración crítica del concepto y del índice.** Bob Sutcliffe.
12. **El imposible pasado y posible futuro del internacionalismo.** Peter Waterman.
13. **50 años de Bretton Woods: problemas e interrogantes de la economía mundial.** Koldo Unceta y Patxi Zabalo.
14. **El empleo femenino en las manufacturas para exportación de los países de reciente industrialización.** Idoe Zabala.
15. **Guerra y hambruna en África. Consideraciones sobre la Ayuda Humanitaria.** Karlos Pérez de Armiño.
16. **Cultura, Comunicación y Desarrollo. Algunos elementos para su análisis.** Juan Carlos Miguel de Bustos.
17. **Igualdad, Desarrollo y Paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres.** Itziar Hernández y Arantxa Rodríguez.
18. **Crisis económica y droga en la región andina.** Luis Guridi.
19. **Educación para el Desarrollo. El Espacio olvidado de la Cooperación.** Miguel Argibay, Gema Celorio y Juanjo Celorio.
20. **Un análisis de la desigualdad entre los hombres y las mujeres en Salud, Educación, Renta y Desarrollo.** Maria Casilda Laso de la Vega y Ana Marta Urrutia.
21. **Liberalización, Globalización y Sostenibilidad.** Roberto Bermejo Gómez de Segura.
Bibliografía Especializada en Medio Ambiente y Desarrollo. Centro de documentación Hegoa.
22. **El futuro del hambre. Población, alimentación y pobreza en las primeras décadas del siglo xxi.** Karlos Pérez de Armiño.
23. **Integración económica regional en África Subsahariana.** Eduardo Bidaurrezaga Aurre.
24. **Vulnerabilidad y Desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de África.** Karlos Pérez de Armiño.
25. **Políticas sociales aplicadas en América Latina. Análisis de la evolución de los paradigmas en las políticas sociales de América Latina en la década de los 90.** Iñaki Valencia.
26. **Equidad, bienestar y participación: bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro.** Alfonso Dubois.
27. **Justicia y reconciliación. El papel de la verdad y la justicia en la reconstrucción de sociedades fracturadas por la violencia.** Carlos Martín Beristain.
28. **La Organización Mundial de Comercio, paradigma de la globalización neoliberal.** Patxi Zabalo.
29. **La evaluación ex-post o de impacto. Un reto para la gestión de proyectos de cooperación internacional al desarrollo.** Lara González.
30. **Desarrollo y promoción de capacidades: luces y sombras de la cooperación técnica.** José Antonio Alonso.
31. **A more or less unequal world? World income distribution in the 20th century.**

- ¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX. Bob Sutcliffe.
32. **Munduko desbertasunak, gora ala behera? Munduko errentaren banaketa XX mendean.** Bob Sutcliffe.
¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX.
33. **La vinculación ayuda humanitaria - cooperación al desarrollo. Objetivos, puesta en práctica y críticas.** Karlos Pérez de Armiño.
34. **Cooperación internacional, construcción de la paz y democratización en el Africa Austral.** Eduardo Bidaurrezaga y Jokin Alberdi.
35. **Nuevas tecnologías y participación política en tiempos de globalización.** Sara López, Gustavo Roig e Igor Sábada.
36. **Nuevas tecnologías, educación y sociedad. Perspectivas críticas.** Ángeles Díez Rodríguez, Roberto Aparici y Alfonso Gutiérrez Martín.
37. **Nuevas tecnologías de la comunicación para el Desarrollo Humano.** Alfonso Dubois y Juan José Cortés.
38. **Apropiarse de Internet para el cambio social. Hacia un uso estratégico de las nuevas tecnologías por las organizaciones transnacionales de la sociedad civil.** Social Science Research Council.
39. **La participación: estado de la cuestión.** Asier Blas, y Pedro Ibarra.
40. **Crisis y gestión del sistema glogal. Paradojas y altervativas en la globalización.** Mariano Aguirre.
¿Hacia una política post-representativa? La participación en el siglo XXI. Jenny Pearce.
41. **El Banco Mundial y su influencia en las mujeres y en las relaciones de género.** Idoye Zabala.
42. **¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo.** Miguel González Martín.
43. **Los presupuestos con enfoque de género: una apuesta feminista a favor de la equidad en las políticas públicas.** Yolanda Jubeto.
Los retos de la globalización y los intentos locales de crear presupuestos gubernamentales equitativos. Diane Elson.
44. **Políticas Económicas y Sociales y Desarrollo Humano Local en América Latina. El caso de Venezuela.** Mikel de la Fuente Lavín, Roberto Viciano Pastor, Rubén Martínez Dalmau, Alberto Montero Soler, Josep Manel Busqueta Franco y Roberto Magallanes.
45. **La salud como derecho y el rol social de los estados y de la comunidad donante ante el VIH/ SIDA: Un análisis crítico de la respuesta global a la pandemia.** Juan Garay.
El virus de la Inmunodeficiencia Humana y sus Colaboradores. Bob Sutcliffe.
46. **Capital social: ¿despolitización del desarrollo o posibilidad de una política más inclusiva desde lo local?** Javier Arellano Yanguas.
47. **Temas sobre Gobernanza y Cooperación al Desarrollo** Miguel González Martín, Alina Rocha Menocal, Verena Fritz, Mikel Barreda, Jokin Alberdi Bidaguren, Ana R. Alcalde, José María Larú y Javier Arellano Yanguas.
48. **Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharak.** Irantzu Mendia Azkue.
Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz. Irantzu Mendia Azkue.
49. **Microfinanzas y desarrollo: situación actual, debates y perspectivas.** Jorge Gutiérrez Goiria.
50. **Las mujeres en la rehabilitación posbélica de Bosnia-Herzegovina: entre el olvido y la resistencia.** Irantzu Mendia Azkue.
51. **La acción humanitaria como instrumento para la construcción de la paz. Herramientas, potencialidades y críticas.** Karlos Pérez de Armiño e Iker Zirion.
52. **Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible.** Roberto Bermejo, Iñaki Arto, David Hoyos y Eneko Garmendia.
53. **Regímenes de bienestar: Problemáticas y fortalezas en la búsqueda de la satisfacción vital de las personas.** Geoffrey Wood.
54. **Genero-ekitate eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan.** María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
La incorporación de la participación y la equidad de género en las cooperaciones autonómicas. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
55. **Hamar Urteko Euskal Lankidetzaren azterketa. Ekuador, Guatemala, Peru eta SEAD: 1998-2008.** Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
Análisis sobre Desarrollo Humano Local, equidad de género y participación de una década de Cooperación Vasca. Los casos de Ecuador, Guatemala, Perú y la RASD: 1998-2008. Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
56. **Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna.** Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
El Desarrollo Humano Local: aportes desde la equidad de género. Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.

- 57. Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak.** Zesar Martinez, Beatriz Casado, Pedro Ibarra.
Movimientos sociales y procesos emancipadores. Zesar Martinez, Beatriz Casado, Pedro Ibarra.
- 58. Borrokalari ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak ikuspegi feministatik.** iker zirion landaluze.
Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género. iker zirion landaluze.
- 59. Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista.** Irantzu Mendia Azkue.
Justicia transicional: dilemas y crítica feminista. Irantzu Mendia Azkue.
- 60. Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipadores.** Zesar Martinez y Beatriz Casado.
- 61. Distribución agroalimentaria: Impactos de las grandes empresas de comercialización y construcción de circuitos cortos como redes alimentarias alternativas.** Pepe Ruiz Osoro.
- 62. La evolución del vínculo entre seguridad y desarrollo. Un examen desde los estudios críticos de seguridad.** Angie A. Larenas Álvarez.
- 63. Los movimientos sociales globales en América Latina y el Caribe. El caso del consejo de movimientos sociales del ALBA-TCP.** Unai Vázquez PuenteCasado.
- 64. Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazioaren kontrolerako. Gizarte-mugimenduetan eta nazioarteko elkartasunean oinarritutako apustua.** Juan Hernández Zubizarreta, Erika González, Pedro Ramiro.
Tratado internacional de los pueblos para el control de las empresas transnacionales. Una apuesta desde los movimientos sociales y la solidaridad internacional. Juan Hernández Zubizarreta, Erika González, Pedro Ramiro.
- 65. Derechos humanos y cooperación internacional para el desarrollo en América Latina: crónica de una relación conflictiva.** Asier Martínez de Bringas.
- 66. Significado y alcance de la cooperación descentralizada. Un análisis del valor añadido y de la aportación específica de las CC.AA. del estado español.** Koldo Unceta y Irati Labaien.
- 67. Ikerkuntza feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak.** Barbara Biglia, Ochy Curiel eta Mari Luz Esteban.

HEGOAK –Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak– herrien giza garapen jasagarria bultzatzea du helburu. Bere xedea garapen arazo eta nazioarteko elkarkidetzan ezagutza eta ikerketa bultzatzea da egiten dituen lan eta ikerketen bidez, eta gizartearen sentsibilizazioan eragitea berdintasun eta elkartasunaren ikuspegitik. Lana, atal hauetan egituratzen du: dokumentazioa, formakuntza, garapenerako hezkuntza eta heziketa, aholkularitza eta ikerkuntza. Garapen gaietan Dokumentazio Zentro espezializatu bat du Bilbon, eta garapenerako hezkuntzarako Baliabide Didaktikoen Zentro bat Gasteizen.

LAN-KOADERNOAK/CUADERNOS DE TRABAJO bere kolaboratzaileek egindako lanak zabaltzeko aldizkaria da, baita garapena hobeto ulertzeko lagungarri diren testuak hedatzeko ere.